

Begira



ULMA

2008ko uztaila // 18 zk

Mahai-ingurua: Genero berdintasuna



aurrez aurre

Markel Olano
*Gipuzkoako Diputatu
Nagusia*



erreportajea

ROCHMAN eta **ULMA** C y
*E kooperatibek
egindako Batzar
nagusiek **ROCHMAN**
enpresa **ULMA**
TALDEAN sartzea
onartu zuten*

Aurkibidea

18 zk • 2008ko uztaila



3 > HIZPIDEA...: Etorkizunera begira. **4 > ALBISTEAK ETA GAUR EGUNGO GAIAK:** ULMA Construcciónek SMOPYC 2008 Berrikuntza Teknologikoaren saria jaso zuen Asturiasko Printze-printzesen eskutik. ULMA Orga Jasotzaileak-ek gas naturalezko orga bat aurkeztu du. ULMA Hormigón Polímerok pieza bereziak diseinatu ditu Coruñan 200 etxebizitzako eraikin enblematiko baterako. ULMA Packagingek bere azken nobedadeak aurkeztu ditu Dusseldorfren 390 m²-tan erakutsi dituen diseinu eta teknologietan, eta Interpackeko bisitari ugariren arreta bereganatu du **14 > AURREZ AURRE:** Markel Olano; Gipuzkoako Diputatu Nagusia. **16 > MAHAI-INGURUA:** Genero Berdintasuna. **24 > GUTARREN ARGAZKIAK ETA HISTORIAK:** Luis Maiztegi, seilu bildumazalea. **25 > ASTEBURURAKO TXANGOAK:** Lamioxin osina; Lamien aterpea Altubren. **26 > ERREPORTAJEA:** ROCHMAN eta ULMA C y E kooperatibek egindako Batzar Nagusiek ROCHMAN enpresa ULMA TALDEAN sartzea onartu zuten. **30 > ZER DERITZOZU?** **32 > AGENDA ETA IRADOKIZUNAK.**

Kooperatiben Batzar Nagusiak eta Taldearen Batzar Nagusia amaitu eta gero, datu orokorrak aztertutik, esan dezakegu ULMA Taldearen 2007ko ekitaldia gogobetekoa izan dela, bere garapenean pauso garrantzitsuak ematea lortu baita.

Enpresaren eremuan, Negozio Bolumen bateratuak etengabe hazten jarraitu du, eta 723 milioi euroraino iritsi da. Nazioarteko hedapena izan da hazkunde horren zutabe nagusia, lehenengo seihilekoan barne merkatuaren portaeraren laguntza izan badu ere. Bigarren seihilekoan, aldiz, barne merkatuan nolabaiteko atzerakada sumatu da, eta horrek erne jarrarazten gaitu 2008ko aurtengo ekitaldiari begira. Nabarmendu behar da salmenta batera-

da. ULMA Taldeak, oro har, %26 handitu ditu bere emaitzak aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Beste urte batez, horrelako egunetan gure Balantza Soziala egiten dugu, zenbaki honetan erakusten duguna; bere adierazle nagusiak, lehen esan dudanez, gure Batzar Nagusietan onartu dira orain dela gutxi. Enpleguaren bilakaera globalak adierazle ikusgarriak azaltzen dizkigu: 2007an enplegua 4.461 postuz osatuta egon da, hau da, enplegua 765 lanposturekin handitu da. Enplegu kooperatiboaren hazkundera ere urrats nabarmena egin dugu, kooperatibetako bazkideen kopurua 276 pertsonarekin handitu baita, nahiz eta hazkunde garai hauetan enplegu sozietarioa sortze-

grazioaren prozesu formala amaitu dugu, eta orain Rochmaneko bazkideei ongietorria eman nahi diet. Eskerrak eman nahi dizkiet denei prozesu hori posible izan dadin eskaini duten esfortzu eta dedikazioagatik. Etorkizun hurbilean proiektuak arrakasta izan dezan, lan egitea dagokigu orain.



ETORKIZUNERA BEGIRA

XABIER MUGARZA. ULMA Taldeko Lehendakaria.

tuen ia erdiak (%43) atzerriko merkatuetan egin direla.

Gaur egungo abagunean esan dezakegu nazioartekotzearen alde egin genuen apustua garaiz iritsi zela; are gehiago, apustua ezinbestekoa zen mundu gero eta globalagoan lehiakorrak izan nahi badugu. Argi dugu eremu horretan oraindik asko dagoela egiteko eta, horregatik, 2008an, apustu irmo horretan jarraituko dugu, etxeko merkatuarekin dugun menpekotasuna gero eta txikiagoa izan dadin.

Lasterketa luzea da hau, ongi kokatu eta eutsi beharra dago, eta segur aski hainbat etapatan sufritzea ere egokituko zaigu. Ezin dugu epe laburrerako helburuak dituen proiektu bat gidatu, aitzitik, gure helburua izan behar da etorkizuneko belaunaldiei jaso ditugun baino erakunde hobeak uztea, sendoak eta etengabe berritzen direnak. Arrakasta izango litzateke etorkizunean gure taldea dinamismoagatik eta ongi egiten jakiteagatik aintzat hartua izatea. Emaitzei dagokienez, horretan ere urte guztiz gogoangarria izan

ko barne helburuei dagokienez arazoak sortzen zaizkigun, enpleguaren hazkundera gehienbat filialetan gertatzen ari delako.

2007ko ekitaldiaren errebaso honetan ez nuke aipatu gabe utzi nahi ULMA Agrícola S. Coop. ULMA Taldeko oinarritzko kooperatiban sartu dela, ULMA C y E S. Coop. bereizi eta gero. Pauso horrek Negozioek Taldean duten protagonismoa indartzen du, POGU IIIan erreferentzi gisa definitu genuen antolamendu ereduranzko bidean. Eskualdeko Taldea garen heinean, gure Negozioen etorkizunaren alde borrokatu eta arduratu behar dugu, baina ez dugu ahaztu behar Talde mailako proiektu bateratu batean gaudela, eta horrek elkartasun eta konpromiso maila jakin batzuk eskatzen dituela. Errealitate horren ondorioz, oreka lortu beharrean gaude eta, hori bazuetan zaila izan badaiteke ere, gure iritziz eredu horrek eramango gaitu negozioak modu ezin hobean garatzera.

Ez nuke amaitu nahi Rochman S. Coop. ULMA Taldean sartzeari buruzko aipamena egin gabe. Taldearen Batzar Nagusian inte-

“Salmenta bateratuen erdia kanpoko merkatuetan gertatu dira”

ULMA Construcciónek SMOPYC 2008 Berrikuntza Teknologikoaren saria jaso zuen Asturiasko Printze-printzesen eskutik

Asturiasko Printze-printzesek SMOPYC 2008 Berrikuntza Teknologikoaren saria eman zioten ULMA Construccióni, eraikuntza jardueran aplikatzeko zerbitzuen Urrezko kategorian. Saria Cristobal Alvarezek jaso zuen, joan den apirilaren 22an, Zaragozako SMOPYC - Herri Lan, Eraikuntza eta Meatzaritzako Makineriaren Nazioarteko Erakusketan. Azokaren antolatzaileek deitutako lehiaketan ULMAk egindako ikerketa lana aitortu da, hainbat solairuko eraikin bat eraikitzekeo prozesuan zehar forjatuen arteko kargen transmisioa zehazteko metodo berria sortzeagatik (DESCIM programa). Software horrek beste metodo tradizional batzuekin lortutako baino emaitza zehatzagoak lortzea ahalbidetzen du, emaitza teorikoen eta esperimentalen arteko konparazioa ezartzen baitu. SMOPYC 2008ko inaugurazio ofizialaren ondoren, Asturiasko Printze-printzesek Azokako instalazioak bisitatu zituzten, eta ULMA Construcciónen standean geldialdia egin zuten. Uneoro interes handia erakutsi zuten saria ekarri duen softwareari buruz, enpresari berari buruz, bere egitura eta kokapenari buruz, eta bere produktuei buruz. Bisitaren ondotik, Asturiasko Printze-printzesek sariak banatu zituzten, kategoria desberdinetan, esparruko Biltzar Aretoan. Enpresako zuzendari nagusi Cristobal Alvarezek jaso zuen saria. Erreminta berriari esker, ULMA Construcciónek zerbitzu gehigarri bat eskaintzen du, bere filosofiari helduta: bezeroari aholkularitza obran eman dakioke, kasu bakoitzean eraikuntza prozesurik egokiena gomendatzeaz gain. Horretarako, eraikinaren sekzio bat modelizatzen du, euskarrien banaketarekin eta prozesu ebolutiboarekin; horrenbestez, proiektuaren fase bakoitzean programak euskarrietara eta forjatuetara transmititzen diren kargak zehazten ditu.

DESCIM programak ULMA Construccióneko materialak eta beharrezko produktuak errentabilizatzea ahalbidetzen du, baita obra egiteko denborak ere. Ondorioz, eraikuntza kostuak eta epeak murriztu daitezke, kalitate eta segurtasun maila ezin hobek mantenduz. ULMA Construcciónek, aurreko edizioetan bezala, nazioarteko azoka honetan presente egotearen aldeko apustua egin zuen. Xede horrekin, bere standaren neurria ia 400 m²-ra

arte handitu zuen, eta horietatik 300 m² inguru bere produktu gama zabala erakusteko erabili zituen. Standaren perimetroan erabili ziren ENKOFORM H-120, OC zintrarekin, ENKOFORM V-100 eta 2,70 eta 3,30eko ORMA enkofratu bertikala. Barrualdean, berriz, ORMA, CLR eta LGR erabiliz egindako pilareak muntatu ziren, baita hainbat enkofratu horizontal ere, horien artean RAPID, RECUB, MESA VR, CC-4 eta EP, SP eta ALUPROP euskarriak. ULMA Construcciónek SMOPYC 2008aren antolaketan parte hartu du, eraikuntzako hainbat material ipini baititu. Hain zuzen ere, azokaren esparruan sarrera plataformak eta totemak instalatu ziren, BRIO aldamioa erabiliz. Hiru pasarela egin ziren, 8x25 m-koak, minusbaliatuentzako egokituak, hamabi publizitate modulu, eta egitura bat Azokaren sarrera nagusi gisa. Egitura horiek guztiak ekitaldiari buruzko publizitate loney estali ziren (SMOPYC 2008), ULMA Construcción babeslea zela adierazita. Edizio honetan, standaren kokapena hobetzeko eta bisitariak errazago iristeko, erakusketa eremua 2. pabiloitik 4.era aldatu zen. Zeuden 11etatik, hautatutakoa erdi-erdian zegoen, eta bisitariak derrigor igaro behar zuten bertatik. Azoka bost egunez zabalik egon eta gero, SMOPYC 2008ak bisita hazkunde nabarmenarekin itxi zituen bere atea: 2005eko edizioan 85.000 bisitari izan ziren, eta aurtengoan 100.000. Hurrengo edizioa dagoeneko martxan da: 2011ko apirilaren 5etik 9ra egingo da.



ULMA Taldea

Kepa Salaberria, ULMA Taldeko Finantzetako zuzendari berria

Orain dela gutxi Kepa Salaberria Taldeko Finantzetako zuzendari berria bihurtu da, Jokin Ugarteren ordeaz. Kepak 56 urte ditu, Ekonomikoetan lizentziatuta dago, eta ESTEko MBA masterra du. Kepa FAGOREtik dator, eta han garatu du bere ibilbide profesionalaren zatirik handiena. Bere zaletasuna dira musika, zinema, ibiltzea...



ULMA Agrícola



ULMA AGRÍCOLA AKUIKULTURAREN SEKTOREAN ACUINOVAREN ESKUTIK. Akuikultura mundu osoan azkarren hazten ari den elikadura produkzioaren sektorea da, eta dagoeneko mundu osoko arrantzaren laurden bat baino gehiago horrela ekoizten da. Bere historian zehar, ULMA Agrícolak hainbat instalazio egin ditu akuikulturaren sektorerako, eta egitura estandarrean hainbat aldaera landu eta garatu ditu, sektorearen behar zehatzetara egokitzeko. Orain dela 8 urte baino gehiago egin zituen Acuinovarako lehenengo instalazioak. Enpresa hori Pescanova taldekoa da, Huelvako Ayamonten dago, 80 ha-ko finka batean, eta langostinoak, urraburuak, mihi-arrinak eta lupiak ekoizten ditu. Instalazioak M8, M6 eta M3.4-ko nabeak eta sareak konbinatuz egin ziren, altuera aldaketekin, fronte irregulararekin eta ia 5 m b/c-ko garaierekin, eta urte horietan obra berezitat jo zen. Orain dela gutxi, Acuinovak ULMA Agrícolarengan ipini du konfiantza plastiko termiko berdezko estalkiaren ordez SUNTOP izeneko polikarbonatu uhinduneko beste estalki berde bat ipintzeko, 7.500 m² betetzen dituzten Nursery eta Preengorde izeneko nabeetan.

ULMA Piping



ULMA Piping presente dago Espainiako industri inbertsiorik handienean

ULMA Pipingek, bere bezero espainiar nagusiaren bitartez, REPSOLEk Cartagenan duen findegia handitzeko bridak eta forjazko osagarriak egingo ditu. Repsol YPF konpainiak 3.262 milioi euro inbertitzea aurreikusi du Cartagenako Valle de Escombrerasen duen findegian, hau da, Espainiako historian industri inbertsiorik handiena izango da. Inbertsio horrekin, Repsolek Escombrerasen destilatzeke duen ahalmena bikoiztea espero du, urtero 11 milioi tona ekoiztiko baititu, egunean 22.000 upela, Cepsak Algecirasen edo Petronorrek Bilbon ekoizten dutenaren pare. Obrak 2011. urtearen erdialdera bitartean egingo dira, 6.000 lagunek baino gehiagok lan egingo dute, eta, proiektatutako zabalkundea funtzionatzen hasten denean, 700 lanpostu baino gehiago sortuko direla espero da. Horrenbestez, Cartagenako findegia modernoenetakoa eta munduan konbertsiorako ahalmenik handiena duena izango da, eta garraiorako erregai garbien ekoizpena maximizatuko du. Inbertsioa egin eta gero, aipatu multzoaren ekoizpenaren %50 baino gehiago destilakin ertainak izango dira, batez ere gasolioak, eta horrek nabarmen murriztuko du Espainian produktu horietan gero eta handiagoa den gabezia. Cartagenako proiektua Repsolek bere instalazioak egokitzeko programaren zati bat da, eta bere helburuak dira garraiorako erregai garbiak ekoiztea, bioerregaien erabilera sustatzea eta eraginkortasun energetikoa, segurtasuna eta ingurumeneko eragina hobetzea. ULMA Pipingentzat, proiektuak gutxi gorabehera 1,4 milioi euroko fakturazioa ekarriko du. Orain dela gutxi hornidura programaturako hitzarmen bat izenpetu da, eta epea elementu kritikoa izango da proiektu handinahi honen martxa egokirako.

ULMA Hormigón Polímero

UDALAITZEKO KONKISTA. Hormigón Polímero negozioko kirol zaleenen eta animosoenen ekimenez, Udalaitez mendiko igoera egin zen, eta bertan joan den udaberrian izandako arratsalde eguzkitsu bakarrenetako batez disfrutatu ahal izan zuten. Parte hartzaileak ederki gozatu ziren hango bistekin eta geroko afari ederrarekin.



Jarduera berria ULMA Handling Systems-entzat

ULMA Handling Systems Sorting and Baggage Handling izeneko jarduera berri bat abiatzeko lanetan sartu da, ULMA Taldearen eta Mondragon Korporazioaren babesarekin. Sorting and Baggage Handling sistema horiek erreferentziatzko hainbat aireportutan ezarri dira dagoeneko, esaterako, Tenerife Hegoaldean, Valentzian, Alacanten, Bilbon edo Zaragozan, besteak beste. Jarduera berria Bartzelonan egin zen Logistikaren Nazioarteko Erakusketaren esparruan aurkeztu zen. ULMAk, gainera, hainbat enpresarekin hitzartutako lankidetzen berri ere eman zuen, horien artean EGEMIN eta EQUINOX izanik, azken urteotan automatizazioko soluzioetako erreferentziatzko Ingeniaritza Logistikoa izatera eraman duten soluzio logistikoen gama zabalari babesa eta sendotasuna emateko. Lankidetzak bi horiek soluzio berritzaileak eskatzen dituen merkatuaren beharrak asetzeko adostu dira, zehazki lineen amaierako sistemei eta karga mota desberdinetarako diseinutako sailkapen automatikoko sistemei begira (sorterrak). ULMA Handling Systemseko zuzendari gerentea den Iñaki Arriolaren hitzetan, "ezin da ahaztu ULMAren abantaila nagusia dela, batez ere, bezeroen beharrei buruz egiten den diagnostikoaren kalitatea. Hau da, bezeroak "zer" konpondu behar duen diagnostikatzen da, eta ez hainbeste "nola" konpondu behar duen; "nola" gerora etorriko den erabakia da". ULMAk hasieratik DAIFUKUrekin duen lankidetzak da garrantzitsu gisa azpimarratzen diren beste puntuetako bat: "guretzat, Berrikuntza geure esentzia da, eta betebeharrak

gisa ulertzen dugu, Ingeniaritza Logistikoa garen heinean. Soluzio berritzaileak behar ditugu gure bezeroen behar logistikoen aurretik joan ahal izateko. Ildo horretan, DAIFUKUrekin daukagun lankidetzak orientagarria da azaleratzen ari diren beste herrialde batzuek, esaterako Japoniak, beren soluzio logistikoak nola ari diren bideratzen aztertzeko eta, horrenbestez, gure merkatuetara eta gure bezeroetara egokitzeko". Jokaleku berri horrekin, ULMA Handling Systemsek kalkulatu du 2011. urterako fakturazioa 75 milioi euro inguru izango dela.



ULMA Orga Jasotzaileak

ULMA Orga Jasotzaileak-ek gas naturalezko orga bat aurkeztu du

ULMA Orga Jasotzaileen negozioak Gas Natural Konprimutzko Orga Jasotzaile berritzaile bat merkaturatu du, Orga Termikoen gama zabaltzen duena. Modelo honek eskaintzen dituen abantailak ekologiaren eta ekonomiaren kontzeptuekin definitzen dira. Ekonomia, lan egindako orduko kontsumoa 0,5 € delako, eta ekologia CO2 emisioak eta NOx eta CO emisioak murrizten dituelako. Ez dauka berunik ezta metal astunen arrastorik ere, ez du partikula solidorik eta SO2 emititzen, diesel motorrek baino zarata emisioaren eta bibrazioen maila txikiagoa du eta bestelako emisio toxikoen maila txikiagoa bermatzen du. Eskaintzen dituen abantaila ugarietz gain, ezaugarri teknikoengatik ere nabarmentzen da: gas naturalezko "Mitsubishi" motorra; gas naturalezko injekzio elektronikoko sistema, lambda zundarekin eta katalizatzailearekin, errendimendu, kontsumo eta emisioei dagokienez motorren funtzionamendua optimizatuz; 200 barreko GNKrako depositua, 80 l-ko gaitasun hidraulikoarekin; gelditu gabe 6,5 ordu ibiltzeko autonomia, eta orduko 2,5 m kubikoko batez besteko kontsumoa. Mitsubishi gama etengabe eguneratzen denez, ULMA Orga

Jasotzaileak-ek lehen mailako orga jasotzaileak merkaturatzen ditu Espainia osoan, bere banaketa sarearen bitartez, bezeroen beharrei erantzuna emanez bai produktuari dagokionez bai zerbituari dagokionez.



ULMA Hormigón Polímero



ULMA HORMIGÓN POLÍMERO TEKTÓNICA 2008AN IZAN DA LISBOAN.

ULMA Hormigón Polímero presente egon da Lisboan maiatzaren 20tik 24ra egin den Tektónica 08 edizioan, eta bertan Eraikuntzako lerroko produktu berriak erakutsi ditu, 36 m²-ko stand batean. Pieza estandarren artean leiho isurki bat aurkeztu da, Portugalgo merkatuentzat bereziki garatua. Produktu estandarraz gainera, Soluzio Integral berriak ere erakutsi ziren, proiektu bakoitzerako berariaz garatuak, horien artean forjako erlaitzak eta fronteak. Pieza berezi horiek akabera berezia dute, eta horrek dotorezi ukitua ematen die, obra bakoitzaren amaierako emaitza pertsonalizatzen delarik.

ULMA Piping

ULMA Piping-en jarduera berriak, EPC PROJECT-ek, bi kontratu berri lortu ditu Japoniako eta Europako ingeniartzekin bi planta petrokimiko eta birgasifikatzeko planta bat hornitzeko

ULMA Pipingek aurrera jarraitzen du EPC PROJECT negozioaren jarduera berrian, Japoniako eta Europako hainbat ingeniartzak kontratuak esleitu baitizkiote bi planta petrokimiko hornitzeko Thailandian eta Polonian, hurrenez hurren, eta Galesen (Erresuma Batua) birgasifikatzeko planta bat hornitzeko. TOYO ENGINEERING japoniar ingeniartzak ULMArengan duen konfiantza sendotu eta eskari berri bat esleitu dio, Thailandiako Rayongen etileno planta baten proiekturako; horren azken bezeroa Thailand Petroleum Authority da. Azken kontratu hori ULMAk ingeniartzita berarentzat egindako beste biri gehitzen zaie, eta horiek Saudi Arabian eta Venezuelan dute egoitza. Horrez gain, munduan sektore petrokimikoan ingeniartzita nagusietakoa den MITSUBISHI HEAVY INDUSTRIES japoniarrak ere ULMAri beste eskari bat egin dio berriro, Polonian PTA planta baten proiekturako. Horrelako plantetan PTA fabrikatzen da, hau da, Poliesterra eta PETa lortzeko oinarriko polimeroa, ontziak fabrikatzeko (Polonia Europar Batasunean sartu zenetik kontsumoa nabarmen handitu da eta, ondorioz, planta honek dagoen eskaria asetzen lagunduko du). Hori da Polonian

eraikitzen den horrelako lehenengo planta. Azken kontratu hori ULMAk ingeniartzita berari dagoeneko egindako beste proiektu bati gehitzen zaio: hura Singapurreko planta baterako izan zen, eta jabea EXXON MOBIL Chemicals da. Azkenik, WHESSOE OIL & GAS ingeles ingeniartzarekin lehenengo kontratua lortu izanak duen garrantzia azpimarratu behar da. Kontratua DRAGON LNG proiekturako da, eta LNG / GNL (gas natural likidotua) gasifikatzeko planta bat da. Gasa Aljeria, Trinidad, Oman eta Qatar bezalako herrialde ekoizleetatik iristen da, gas ontzi handietan, eta Erresuma Batuko Gales eskualdearen (Mildford Heaven) behar energetikoak asetzen ditu. Erresuma Batuan sortzen den energiaren %40 gas natural bidez ekoizten da eta, Ipar Itsasoko gas erreserbak murriztu eta energi eskaera handitu egin dela eta, datozen urteetan bertan birgasifikatzeko planta berriak egitea proiektatu da. *"Nabarmentzekoa da jada entregatu diren proiektuetan ULMAk egin duen jarduera integrala, horri esker bezero berriak atzitzea eta dagoeneko daudenak atxikitzea lortzen ari baita, horiek direlarik hain zuzen ere negozioaren garapenaren giltzarria"*.



Etileno planta, eraikitzen ari direnaren antzekoa



LNG/GNL biltegitratzeko tankeak egiten, Dragonen proiekturako



PTA planta, eraikitzen ari direnaren antzekoa

ULMA PACKAGING: NON FOOD-AREN ALDEKO APUSTU IRMOA. ULMA Packaging Espainiako ontziratze eta enbalatze makineriako liderra da elikaduraren merkatuan, eta Non Foodaren aldeko apustu irmo eta erabakigarria egin du. Maiatzaren 16an egindako azken Batzar Nagusian, gehiengoak Rochman S. Coop.eko packagingeko dibisioa Packaging de ULMA C y E, S.Coop. eko gaur egungo atalean integratzea erabaki zuen. ULMA Packaging, azken urteotan, urteko %15eko hazkundea izaten ari da, batez ere elikaduraren sektorean, eta aipatu integrazio horrekin Non Foodaren merkatuan daukan eskaintza bultzatu du. Gaur egun, Rochmaneko packaging dibisioaren urteko salmentak 10 M € dira. ULMAren aurreikuspenek diote Non Foodeko urteko hazkundea %20 izango dela. Horretarako, salmentarako sare propio bat izango du, hainbat sektoretarako aplikazioetan espezializatua, horien artean Ikus-entzunezkoak, Automobilgintza, Drogeria-Perfumeria, Argitalpenak, Elektronika-elekttrizitatea, Burdinkiak, Jostailuak, Etxeko gauzak, Produktu kimikoak eta Ehungintza. Rochmaneko 54 profesional integratu dira ULMA Packagingen uztailaren 1az geroztik. ULMA Packagingek ia 112 M € fakturatu zuen, eta Oñatin, Logroñon, Errumaniar eta Brasilen ditu produkzio guneak; bere Teknologia Zentroa dauka (ULMA Packaging Technological Center, S.Coop.), eta herdoilgaitzezko galdaragintzarako lantegi propio bat ere (ULMA Precinox, S.Coop.). ULMA Packagingen dagoeneko 900 langile baino gehiago ari dira lanean, atzerrian 16 filial dauka eta Espainian 7 ordezkaritza, eta hazten jarraitzen du eta merkatuan gero eta indartsuagoa da.

ULMA Hormigón Polímerok pieza bereziak diseinatu ditu Coruñan 200 etxebizitzako eraikin enblematiko baterako

ULMA Hormigón Polímerok pieza bereziak egin ditu Coruñako Boiroko erdiguneko 200 etxebizitzako eraikin dotore baterako. Eraikina egiteko 30 milioi euro inbertitu dira, 62 m-ko frontea dauka, 93 m-ko hondoa eta gutxi gorabehera 5.800 m²-ko azalera. Eraikinari "Boirocenter" ipini diote izena, sail oso bat betetzen du, eta erdian 1.800 m²-ko plaza bat dauka. Boiroko proiektua soluzio partikularizatuak eskaintzeko lankidetzaren adibide ona da, arkitektura estudioaren, sustatzailearen, eraikitzailearen eta materialaren enpresa fabrikatzailearen artean, ideien sorreratik amaierara arte, "Aldi Bereko Ingeniaritza" esaten zaionaren ildoan. Horretarako, proiektuaz arduratu den Amancio Losada arkitektoa ULMAko proiektu taldearekin jarri zen harremanetan; azken horrek aurretiaz bideragarritasun teknikoaren eta produktiboaren azterketa egin zuen, soluzio pertsonalizatua asmatzeko, arkitektoaren eta fabrikatzailearen sail teknikoaren arteko lankidetzarekin. Probain sustatzailearen helburua etxebizitza promozio handi bat eraikitzea zen, diseinuagatik berezia izango zena, baina aldi berean ingurunean integratuta. Lanaren koloreak zuriak, berdeak, zilarrak, grisak eta okreak dira eta, erabilitako materiala dela eta, obrak lotura handia du bertan erreferentzia diren itsasoarekin eta kostaldearekin. Diseinatu eta egin diren pieza berezien artean eraikin osoa inguratzen duen atorra bat nabarmentzen da, eraikina errematatzen duena, indar handia emanez. Atorraz gain, erlaitz txikiago batzuk ere egin dira, uretarako isurbide bereziak erlaitzekin bat datozenak, eta pilastra handiak eta leiho inguruak, eraikinari dotoretasuna eta berezitasuna ematen diotenak. Materialaren ezaugarriak eta bezeroaren diseinu eta fabrikazio beharretarako



egokitzea erabakigarriak izan ziren piezen hornitzailea ULMA izatea erabakitzeke. Hormigoi Polimeroak akabera leuna dauka, eta ur absortzioaren indizea nulua da; ondorioz, fluidoak azkar ateratzen dira, eta materialak gehiago irautea bermatzen du. Hain zuzen ere, ezaugarri hori ezinbestekoa da proiekturako, eraikina hezetasun eta gazitasun maila handiko ingurune batean baitago.

ULMA Handling Systems

ULMA Handling Systems-ek PROCLINIC-en automatizazio logistikoari ekin dio

Proclinic Espainiako hortz kliniketan produktu odontologikoen banaketan espezializatuta dagoen enpresa da, eta hobekuntza nabarmenak sartu ditu bere barne logistikan, ULMA Handling Systemsek diseinatu eta Zaragozan ezarritako automatizazio logistikorako sistema berri baten bitartez. Automatizazioaren abantailaz jakitun, horrelako biltegi batean Bartzelonan hainbat urtez lan egin eta gero, horren ahalmena zabaltzeko aukerarik ez zegoela ikusirik, orain dela urte eta erdi Aragoiko hiriburuan kokatu zen, errendimendu handiagoa izango zuen sistema logistiko batez hornitzeko xedearekin. Proclinic-ek eskariak prestatzeko eta biltegitratzeko sistema automatikoa Zaragozan ipintzea erabaki zuenean, Bartzelonako instalazioan ez zegoenez errendimendu gehiago ateratzerik, hainbat integratzaileekin jarri zen harremanetan, bere egoera aztertzeko eta proposamenak egin zitzaizten. Azkenean, ULMA Handling Systems izan zen haien behar eta eskakizunetara gehien hurbildu zena, merkatuan erreferentzi kopuru handia izateaz gainera.

“Gure bezeroei exijitzen dieguna prestaketan azkartasuna eta kalitatea lortzea da. Horiek dira gure erronka nagusiak logistikaren arloan”

Proclinentzat, bezeroaren zerbitzua da izateko arrazoi nagusia; hau da, kontzeptu horretan mamitzen da enpresa gisa duen filosofia osoa, eta hori lortzeko bideak baldintzatzen ditu barne prozesu guztiak. “18:30ean eskari bat hartu eta egunean berean prestatzeko gauza bagara, bezeroak bere hortz kliniketan hurrengo egunean jaso dezan, Espainian edozein tokitan dagoela ere, gure sistemari exijitzen dieguna da prestaketan azkarra eta kalitatekoa izan dadila. Horiek dira gure erronka nagusiak logistikaren arloan”. Gaur egun, Proclinic-ek egunean 900 eskari inguru hartzen du, hau da, 7.000 picking linea inguru, eta horiek prestatzeko 10 pertsonako talde bat dago, 12:00etatik 19:30era diharduena. Horrek esan nahi du lan erritmoak orduko 1.200 lineatik gora izatea,

eta egunaren amaierako azken emaitza 2.500 fardel dira, garraio bidez banatzen direnak. ULMA Handling Systemsek Proclinin sistema logistikorako diseinatu eta Zaragozan ezarri duen instalazioak 3 azpistema dauzka. Horietako bat siloa da, 2.000 palet kudeatzeko gaitasunarekin (kokagune honetan bolumen handiko eta errotazio ertaineko materialak biltegitratzen dira, orduko 40 pickingeko fluxuarekin); 17.000 edukiontzi eta 50.000 kokagunetik gora dituen miniload bat, bi langileekin orduko 600 pickingeko produkzioak egiteko gaitasunarekin; eta grabitate bidezko hiru pasillo arrapaladun, errotaziorik handiena duten 450 erreferentzietarako. Azpistema horretan ere orduko 600 pickingeko errendimenduak lortzen dira, baina bost pertsonarekin. Instalazioak orduko 2.000 eskari linea zerbitzatzeko ahalmena du, Bouchetek jakinarazi duenez.



ULMA Taldea

VODAFONEREN HITZALDIA. Joan den ekainaren 18an hitzaldia izan zen Oñatin ULMA Taldeak duen auditoriumean, telekomunikazioen arloko joerez eta berrikuntzaz aritzeko. Vodafoneko Enpresetarako zuzendari nagusia den Antonio Alemanek, Marketineko zuzendaria den Javier Jaquototek eta Estrategiako zuzendaria den Andres Vicentek eman zuten hitzaldia.





ULMA Orga Jasotzaileak

ULMA ORGA JASOTZAILEAK-EK OPERAZIOA ITXI DU RAMON VIZCAINO S.A.REKIN.

Ramón Vizcaino Internacional S.A. enpresak tenperaturak kontrolatzeko sistemak eta zerbitzuak diseinatu, fabrikatu eta instalatzen ditu, eskala handiko hotz soluzioetan aplikatuta, eta bere jarduera nekazaritzako elikagaien sektorean, logistikan eta industri prozesuetan garatzen du, maila nazionalen zein internazionalen. Oraingoan, ULMAren esperientzian eta profesionaltasunean duen konfiantza berretsi du, azken urteotan Oartzunen dagoen lantegian emandako zerbitzu onaren ondorioz. Horrenbestez, ULMAk Ramón Vizcainok Venezuelan irekiko dituen 15 hotz zentroetako behar logistikoak hornituko ditu, bere aholkularitza logistikoaren bitartez, instalazioetan 109 Mitsubishi Orga Jasotzaile ipiniko baititu (22 orga kontrapisatu, 5 metatzaile eta 82 eskuzko transpalet).

ULMA Packaging-en produktu berriak

ULMA Packaging

Merkatuan 12 urteko baino gehiagoko presentzia eta 2000 instalazio baino gehiago dituelarik, PV-350 familiak beste makina familia bati egin dio leku, prestazio hobeeekin eta erabiltzaileek jarduteko erraztasunekin. SIENNA familia berriak bere aitzindariaren sendotasuna, erabilerraztasuna eta fidagarritasuna mantentzen ditu, malgutasun eta moldagarritasun handi-
goak eskaintzen ditu, eta erabiltzen errazagoa da, parametroetara ukimen



pantaila batez iristen baita. SIENNA familia berriak malgutasun handia eskaintzen du, fidagarritasuna frogatuta dago eta berrikuntza teknologikoa ezarri zaio eta, horren ondorioz, makina ezin hobea da elikaduraren sektoreko aplikazio askotarako, bereziki nekazaritzan, okelaren sektorean, esnearen sektorean... OLYMPUS makina, berriz, ekipamenduaren apaltasuna, fidagarritasuna eta erabilerraztasuna lehenesten dituzten merkatuetarako diseinatu da bereziki. Bere elementu mekaniko zein elektriko guztien sendotasuna, neurri trinkoa eta mantentzeko erraztasuna direla eta, makina bikaina da abiadura ertaineko aplikazioetarako,



kalitate/prezio harreman ezin hobearrekin.

Azkenik, EVEREST makina, produktu desberdin ugari ontziratzeke bereziki sortua, dituen prestazio handiengatik nabarmentzen da. Malgutasun handia du formatua eta dosiak aldatzeko eta, edozein film motata moldatzen denez, merkatuko punta-

puntako makinaren artean kokatzen da. Ergonomikoa, garbitzen erraza eta mantentze lan txikikoa, EVEREST makina kontrolerako interfazearen erabilera erraz eta intuitiboa bermatzeko garatu da bereziki. Horren emaitza prestazio eta produkzio handia behar duen industriarako makina ezin hobea da.



ULMA Hormigón Polímero



ULMA HORMIGÓN POLÍMERO, TXILEN SENDOAGO. Socodren SA enpresa txiletarrak drainatze eta eraikuntzako goi teknologiko soluzioak ematen ditu, eta ULMA Hormigón Polímerok Andeetako herrialdean duen partner berria da. Konpainiaren langileek know-how handia dute, bai teknikoa bai komertziala, kanalizazio eta eraikuntzako sistema aurrefabrikatuak dagokienez. Bi enpresen artean dagoen lotura estua etengabeko aholkularitzarekin eta komunikazio mailako lankidetzarekin indartzen da. Enpresa horrekin batera, Txilen bi enpresak ipini dute euren konfiantza gure produktuetan, eta herrialde horretan dugun merkatua zabaltzen lagun dezakete.

ULMA Construcción

Aitor Ayastui, ULMA Construccióneko gerente berria

Aitor Ayastui (Arrasate 1968) Cristobal Alvarezen lekukoa hartu du orain dela gutxi ULMA Construccióneko Zuzendaritza Nagusian. Euskal Herriko Unibertsitatean Enpresa Zientzietan lizentziatua, ikasketak eta MCCko hainbat enpresatan egindako praktikak uztartu zituen, bere prestakuntza hobetuz eta inguruko kooperatiben lan moldeak eta filosofia bertatik bertara ezagutuz. Ikasketen etapa amaituta, inguruko eraikuntza enpresa batean hasi zen, eta horrela hurbildu zen pixkana eraikuntzaren mundura. Prestakuntza sakontzeko, Erresuma Batura abiatu zen, MBA bat egitera, Eskoziako Robert Gordon unibertsitatean. 1995ean itzuli zenean, ULMA Taldean sartu zen, Agrícola negozioan Controller lanetan, 1997an Argentinara lekualdatu zen arte, lehendabizi Controller izateko, eta gero, 2001ean, filialeko gerente izateko, baina ULMA Construcciónen jada. 2005ean Amerikako gerentearen postua hartu aurretik, ULMA Construccióneko matrizean Manager Arloko lanak egin zituen.

- **Nola hartu duzu Amerikako gerentetik zuzendari nagusirako aldaketa?** Ilusio handiz. Argi daukat une konplexua dela, egoera ekonomikoa pixkanaka nahasten ari delako. Baina babes handia daukat: inguratzen nauen Zuzendaritza taldea esperientzia handiko Kontseilua da, oso prestatua eta indartsua. Horrekin proiektua nota altuarekin ateratzeko konfiantza daukat. Errespetu handiz hartu dudana erronka ere bada, erantzukizun handiko kargua delako, baina, berriro diot, ilusio handiz heldu diot.
- **Izendapenak harritu zintuen?** Hein batean. Zuzendaritza Batzordeko gazteenetakoa naiz, baina esperientzia daukat. Hain ongi prestatuta dagoen talde batek eta talde horren barruan hautatua izatea ohorea da niretzat.
- **Zu hautatzeko, zer uste duzu lehenetsi dela?** Lehenik eta behin Zuzendaritza taldeko kidea izatea, nazioarteko merkatuan esperientzia izateaz gainera. ULMA Construcción edozein herrialdetan ezartzeko politikaren oinarrian negozio gisa dugun ongi egiten jakitearen esportazioa da, eta hori dudana esperientzia baloratuko zela pentsatzen dut.
- **Zer egoeratan dago Amerika?** Oraintxe bertan finkatu beharreko hainbat gai utzi ditut: Mexiko bultzatzea, kontinentearen barruan Panama bezalako herrialdeetarako zuzeneko salmenta, Estatu Batuen proiektua, etab. Gainera, beste proiektu batzuk finkatu ditugu eta, oro har, uste dut gure kokapena nabarmen hobetu dugula, batez ere Hegoaldeko Amerikan. Amerikan hasi nintzenean 17 milioi € fakturatzen genuen urtero, eta aurten aurreikusita dago 63 milioi € baino gehiago fakturatzea.
- **Nola baloratzen duzu Amerikako egonaldia?** Nik mundu guztiari gomendatzen diot lanera atzerrira irteteko. Pertsona zein profesional gisa hazarazten zaituen esperientzia da, nahiz eta batzuetan esperientzia zaila den: Argentinara iritsi nintzenean, berotegien mundutik nentorren, eta azkar ikasi behar izan nuen. Amerikako gerente gisa asko-asko disfrutatu



dut. Ahalegin handia izan da, eskualde desberdinen artean lanak koordinatzeko zeregina zaila delako. Eta ez bakarrik lanaren ikuspegitik, baizik eta ikuspegi pertsonaletik ere (familia, seme-alabak...), baina merezi izan du.

- **Zein dira ULMA Construcciónen erronkak?** Helburu nagusia modu iraunkorrean haztea eta merkatu globalean dugun kokapena sendotzea da. Hori lortzeko, maila nazionalean lider izaten jarraitu behar dugu, Obra Zibilean jardunez, merkatu zabala baita eta aukerak baititu. Administrazio Publikoak horrelako exekuzioak ari da bultzatzen sektorea eta, ondorioz, ekonomia nazionala dinamizatzeko. Adi egon behar dugu sortzen joango diren aukerei buruz. Etxebizitzaren eraikuntza erori egin da eta, nire ustez, inoiz ez da berriro izan zena izango. Horregatik, negozioa birbideratu egin behar da. Horrelako obretan gure lehiakideek baino esperientzi urte gutxiago izanik, azkar ikasi beharko dugu. Bitartean, atzerrian modu errentagarrian hazi behar dugu.
- **Eta, enpresa barruan dituzun proiektuak?** Nire proiektuak ULMA Construcciónen proiektuak dira. Eta horiek ULMA Construcción sendoa goa lortzera zuzenduta daude, enpresak erositik, ezarpen propioak landuz, hazkundea bideragarri izan dadin finantzaketa lortuz, enkofratuetan aplikatzeko teknologia berriak garatuz eta etorriko diren beste jarduerak asko gauzatuz.
- **Zure esperientziaren arabera, nola hautematen duzu merkatua?** Merkatuari buruz modu orokorrean hitz egitea ez litzateke egokia. Argi dago Espainiakoa ez dagoela bere unerik gozoenean, eta seguruenik okerrera egingo du. Berdin gertatzen da estatubatuarrekin eta beste batzuekin ere; dena dela, gure sektorean indartsu hazten ari diren sektoreak daude, esaterako, Europako Ekialdeko zati bat, Brasil, Peru, Ekialde Hurbila... Horregatik, merkatu bakar batez edo horren egoeraz hitz egitea engainagarria izan daiteke.
- **Panorama horren aurrean, zer mekanismo daukagu?** Finantzen arloan zalantzak nagusi dira, baina aukerak sortu ditugu, eta gure betebeharrak horiek aprobetxatzea da. Erronkei aurre egiten ohituta dagoen erakundea gara. Nazioartekotzeko prozesua orain dela urte asko hasi zen, eta orain fakturazio bateratuaren %55 ekartzen digu. Gure esperientzia aplikatzen dakigu, eta kokatzen garen lekuetan hori baliatzen ikasi dugu. Hori da gure indargunea eta, aldi berean, eguneroko erronka. Pertsonak dira muina eta, ildo horretan, oso indartsuak gara, bai Espainiakoa merkatuan bai atzerrikoan. Hor datza gure indarra eta aukera nagusia batera argi ez dagoen panorama horren aurrean.

> Albisteak eta gaur egungo gaiak



ULMA Hormigón Polímero

PATXI BARRENA DA ULMA HORMIGÓN POLÍMEROKO LEHENDAKARI BERRIA. ULMA Hormigón Polímeron 4 urtez lehendakari izan eta gero, Juan Luis Murguzurrek kargua utzi eta Patxi Barrena ipini dute horren orde, maiatzaren 23an egindako Batzar Nagusian bazkideek hala erabakita. Patxi Barrenak 3. bazkide zenbakia dauka kooperatiban. 1974. urtean hasi zuen ULMA Taldean ibilbidea, Packaging negozioan, eta 1992an hasi zen Hormigón Polímeroko jardueran. Negozioaren kide historikoetakoa da.

ULMA Packagingek bere azken nobedadeak aurkeztu ditu Dusseldorfren 390 m²-tan erakutsi dituen diseinu eta teknologietan, eta Interpackeko bisitari ugariaren arreta bereganatu du

ULMA Packagingek distira berezia izan du Dusseldorfren apirilaren 24tik 30era egindako Interpack azokan. Standak 390m² zeukan, eta ULMAk bere azken nobedadeak aurkeztu zituen, diseinu berritzaile batekin. ULMAk ontziratzeko proposatzen dituen soluzio berrien xehetasunak ezagutzera hurbildu ziren bisitarien artean bost instalazio nagusitu ziren. ATLANTA+ATLANTA barratxoetarako lerroak banaka ontziratzen diren produktuak jasotzen ditu, eta multipack erako multzoak egiten ditu, nahi den ale kopuruaren arabera. ARTIC+ROBOT Minipizza Izoztua paketzeko lerroak produktua mikrouhin labean berregiteko aukera ematen du, eta oinarria kurruskatsua uzten du, kontsumitzeko prest. Karga sistema robotizatuak ikusmen artifi-



ULMA Packaging

ziala dauka eta, horri esker, produktuaren kalitatea paketatuta aurretik kontrola daiteke. Malgutasun handia du formatua eta dosiak aldatzeko, edozein film motatara moldatzen da eta, goi mailako prestazioak eskaintzen dituenenez, EVEREST biltzaile bertikala merkatuko azkarrenetakoa da. OPTIMA paketzatzaile higienizagarriak elementu berritzaileak barneratzen ditu, makina errazago garbitzeko eta higienizatzeko. Dusseldorfren aurkeztu den SCORPIUS 100 termozigilagailuak, berriz, produktua erretiluetan automatikoki kargatzen du, ondoren makinan termozigitzeko. Bost proposamen berritzaile, ULMAk etorkizun, berrikuntza, efikazia, diseinu eta, batez ere, bezeroarekin daukan konpromisoaren erakusle.

ULMA Hormigón Polímero



GUNE BIRTUAL BERRIA ULMA HORMIGÓN POLÍMERORENTZAT. Orain dela gutxi, ULMA Hormigón Polímerok negozioaren web orria berrituta eta handituta argitaratu du. Birdiseinu osoa egin da, gune eguneratuagoa eskaintzeko helburuarekin, erabiltzaileentzako erabilerraza, praktikoa, intuitiboa eta baliagarria. Interaktibitateari indar handiagoa eman zaiolarik, baita deskargak egiteko aukera ere, gune birtual berriak albisteen eta notizien atalak dauzka, produktu berrien berri emateko, eta erabiltzaileei oso informazio osatua ematen zaie eta aldizkako buletin bat jasotzeko aukera, merkatura atera diren nobedade guztiekin. Web berriak, gainera, bezeroekin informazioa trukatzeko gune eskusibo bat dauka, zerbitzu pertsonalizatua eskaintzeko bidean. www.ulmapolimero.com.



ULMA Handling Systems eta ULMA Orga Jasotzaileak: erreferentziako Logistika SIL 2008an

Logistikaren Nazioarteko Erakusketaren (SIL) aurtengo edizioan biltegitratzeko eta eskaerak prestatzeko sistema automatikoak ikusi ahal izan dira, baita ULMA Handling Systemsek sailkapen automatikorako garatutako soluzioak ere (sorterrak). ULMAk eskaintzen duen sorter aukera zabalaren barruan, aurtengo erakusketan Surfing Sorter Mini sailkatzailea aurkeztu zen, osagai txikietako eskariak prestatzeko inguruneetarako diseinatu; horrekin batera, EQUINOX kide holandesaren sailkatzailea ere ikusi ahal izan zen, jantziak, osagarriak, liburuak eta abar sailkatzeko aplikazio ugari dituen. Sistemari esker, sailkatu beharreko produktuak erretiluetan garraiatzen dira eta zuzenean dagokion eskariaren kutxan deskargatzen dira. Sailkapen automatikorako sistema hauek aurretiaz sistemari sartutako edo induzitutako elementuak azkar sailkatzeko ahalmena dute, eta bere helmuga nagusia banaketa eta transferentzi zentroak dira. Logistikako zerbitzu integrala emateko helburuarekin, ULMA Handling Systemseko Supply Chain Software dibisioak, Pick To Light Systems-ekin batera, Informazio Sistema berria aurkeztu du IK LOG izena eman dioten kate logistikorako. Sistema hori soluzio malgu eta modular bat eskaintzeko diseinatu da, Pick to Light sistemetako soluzioetan, sailkapen automatikoko sistemetako soluzioetan, irratimaiztasunezko sistemetan eta biltegien kudeaketa integralerako soluzioetan erabiltzeko, besteak beste. Stand honetan IK LOG suite logistikoak eskariak sailkatzeko

eta prestatzeko eskaintzen dituen egiazko aplikazioak ikusi ahal izan ziren, banaketa automatikorako inguruneetara zuzendutako egiazko erakustaldia egin baitzen. AIOI Systems erraldoi japoniarren babesean, Pick to Light Systemsek eskariak prestatzeko sistemak soluzioak banatzen eta ezartzen ditu European, L-Pick hardwarearen bitartez. ULMA Orga Jasotzaileak, berriz, Barrualdeko Orga Jasotzaileen eta Mitsubishiren Gas Natural Konprimatuzko Orga Jasotzaileen azken nobedadeak aukeratu zituen. Oraingo honetan timoi berria duten barrualdekoen gama berriak eskaintzen dituen abantaila ugariak erakutsi zizkion merkatuari, horien artean kontrol ergonomikoagoa, direkzio zehatzagoa, egonkortasun handia, ikusgarritasun handia eta txasis sendo bat; halaber gas natural konprimatuzko orga berriaren abantailak ere azaldu zituen, emisio maila txikiagoekin eta lan egindako ordu bakoitzeko batez besteko kontsumo txikiagoarekin. Modelo berri horiek orga jasotzaileen erabiltzaileei dituzten beharretarako soluzio berriak eskaintzeko diseinatu dira, biltegien barruan zein kanpoan manipulatzeko dituzten beharrak kontuan hartuta. Gainera, azokaren hamargarren urteurrena aprobetxatu zen penintsula osoan gure banaketa sarean diharduten banatzaile guztiak gonbidatzeko, banatzailearen eguna antolatu baitzen. Horrenbestez, ULMAk arrakastatsutat jo zuen Bartzelonan egindako azoka, zeina bisita interesgarri ugari-ekin itxi zen.

ULMA Agrícola

ULMA AGRÍCOLAK ISO 9001:2000 ZIURTAGIRIA LORTU DU, AENOREK EGIAZTATUA. ULMA Agrícolak Kalitate Kudeaketaren ISO 9001:2000 ziurtagiria lortu du, Espainiako Normalizazio Erakundea den AENOREk egiaztatua. ULMA Agrícolak, ULMA CyE, S.Coop.eko atala zen heinean, ISO 9001:2000 ziurtagiria zuen. ULMA Taldeko beste kooperatiba bat gehiago gisa eratzearen ondorioz, kalitatea kudeatzeko bere sistema propioa garatu du, enpresaren egoera berrira egokitzeko. Joan den maiatzean, ULMA Agrícolak AENOREn ikuskaritza izan zuen eta, horren ondorioz, ekainean ziurtagiria eman diote. Errekonozimenduak enpresan ezarritako sistema egokia dela bermatzen du, eta bezero bakoitzaren beharrak asetzeko daukan orientazioa indartzen du. Horrenbestez, ULMA Agrícolak nazioartean duen eragina indartu du, eta gero eta zorrotzagoa den merkatuan duen kokapen lehiakorra finkatu du. Enpresek ISO 9001:2000 araua lortzeko bete behar dituzten oinarriko hiru baldintzak dira enpresa bezeroagana orientatuta egotea, etengabeko hobekuntza eta prozesuen araberako antolamendua. Kalitate Kudeaketaren sistema garatzeko pertsona askoren ekarpenak eta inplikazioa izan ditu eta, horri esker, erakundearen beharretarako egokitzen den sistema bat izatea lortu da.





“Gipuzkoa aurrera proiektu estrategikoak azkartzeko jaio da”

Nola kalifikatuko luke Markel Olanok Gipuzkoako egoera sozio-ekonomikoa? Auzokoak baino hobeto edo okerrago gaude? Diputatu nagusiaren ustez, azken urteetan gure lurraldean izandako garapena Bizkaiko eta Arabako lagunek izan dutenaren parekoa da?

Zalantzarik gabe, nazioarte mailan motelaldi egoeran gaude. Eta Gipuzkoan, eta Euskadin oro har, ez gaude testuinguru horretatik kanpo. Une honetan inor ez da gauza desazelerazio prozesu honen sakonera zein iraupena zehatz-mehatz iragartzeko. Baina nik uste dut euskal

ekonomian egoera berriari lasai eta konfiantzaz aurre egiteko behar diren elementu guztiak ditugula. Euskal erakundeak prest gaude egoerari heltzeko eta politika antiziklikoak garatzeko desazelerazioaren ondorioak arintzeko. Gipuzkoako ekonomian, Euskadiko gainerako lurraldeetakoan bezala, industriak oraindik ere pisu handia du, eta hor, arlo publikotik zein pribatutik, apustu handia egin da berrikuntzaren eta lehiakortasunaren alde. Horri guztiari esker, inguruko beste lurralde batzuk baino hobeto prestatuta gaude orain datorren egoerari erantzuteko. Ezin da justifikaziorik gabeko alarma sozial bat sortu. Zikloaren aldaketak eragingo dio euskal ekonomiari, baina hori ez da zakarki gertatuko.

**Gipuzkoa tradizionalki gizarte berri-
tzaila eta ekintzailea izan da. Horrela
jarraitzen dugu? Zer egin dezake-
gu ekonomiaren eragile aktiboak bi
alderdi horiek sustatzeko? Gipuzkoa
Aurrera taldea sortzea bide horretako
lehengo urrats bat da?** Gipuzkoaren garapen ekonomikoa, bere historian zehar, gure ahaleginaren arabera izan da beti, gure ekimenaren arabera, alegia, gure enpresa espirituaren arabera. Horregatik garrantzitsua da ekintzailtzarako dugun temperatura neurtzea. Orain dela gutxi hainbat herrialdetan jardue-
ra ekintzailea neurtzeko egindako GEM Global Entrepreneurship Monitor azterketak dioenez, Gipuzkoak azken lau urteetan progresio nabarmena izan du, Europako batez bestekoa gainditzen du eta Estatu Batuetatik gertu kokatu da, %9,61ekin. Datu itxaropentsua da giroa lainotzen hasita dagoen garaioan. Beraz, Gipuzkoak denbora darama ahalegin handia egiten, baina inoiz ez da aski. Oraingo testuinguru ekonomikoa guztion talde lana behar da, aurrea hartu eta neurri eraginkorrak hartu behar dira, lehiakorrak izaten jarraitzeko. Gipuzkoak proiektu estrategikoetan duen nolabaiteko geldialditik atera behar du. Planteatuta ditugunak bultzatu behar dira, eta proiektu berrietan pentsatu. Elkarrekin eta lankidetzan aritzeko modu bat bila-

Markel Olano

Gipuzkoako Diputatu Nagusia

Markel Olano 1965eko ekainaren 2an jaio zen, Beasainen. Filosofian lizentziatua da, eta bere ibilbide politikoan zehar hainbat kargu bete ditu EAJren barruan, Euskadi Buru Batzarrera iritsi arte. Alderdiaren arduradun gorena izan da hainbat arlotan, esaterako, hezkuntzan, kulturaren edo teknologia berrietan. Denbora librean mendia eta argazkilaritza ditu zaletasun. Gaur egun Gipuzkoako diputatu nagusia da.

tu behar da, desberdintasun politikoe-tatik haratago, guztiok norabide berean lan egin behar dugu lurraldearentzat hain garrantzitsuak diren gaietan. Horretarako sortu da "Gipuzkoa Aurrera" taldea, Foru Aldundiak, Merkataritza Ganberak, ADEGIk, KUTXAk eta Mondragon Korporazioak osatuta. "Gipuzkoa Aurrera" ekimenaren balioa eta indarra, hain zuzen ere, batasunaren eta elkarlanerako gaitasunaren indarrean oinarrituta daude. Taldeko bost kideen lankidetzatik abiatuta, erreferentziatzeko talde bat sortu nahi da, ilusioz, ekimenak planteatzeko talde bat, arlo guztietan positiboki eragiteko, proiektu estrategikoak azkartuko dituzten gestioak arintzeko.



"Berrikuntzan liderra izan gaitezen ingurune dinamikoak behar dugu"

Europa mailan, Gipuzkoa behar bezain lehiakorra da? Gure industriak eta azpiegiturak merkatu globalaren beharren mailan daude? Markel Olanoren ustez, gure tradizio kooperatibo sendoak zer eragin izan du Gipuzkoako garapen ekonomikoan? Gipuzkoako berrikuntzan liderra izan dadin ingurune dinamikoak behar du, langile adituak erakarriko dituen, inbertsioak... Ingurune hori sortzeko ez da nahikoa jakintza eta I+G-an inbertitzea, aitzitik, jakintza horiek emaitza eta aberastasun bihurtzeko gai izan behar

dugu. Horretarako, Gipuzkoak berrikuntzaren kultura bat sortzeko eta sustatzeko gai izan behar du, eragile desberdinek balio erantsi handiko ekimenetan parte har dezaten, ekintzailatza sozialki baloratu eta susta dadin, eta globalizazioa aukera gisa ikus dadin. Testuinguru horren barruan, zalantzarik gabe, kooperatibak ezinbesteko erreferentzia dira, barrura begira zein kanpora begira. Adibide gisa, dagoeneko oso ezagunak diren pare bat datu gogora daitezke: Mondragon Korporazioa Gipuzkoako enplegu sortzailerik handienetakoa da. Taldearen esportazioak Gipuzkoako esportazio guztien %31,4 dira, energetikoak alde batera utzita, eta Gipuzkoako BPGari egien dion ekarpena %8 ingurukoa dela esan daitezke, eta EAE osorako %3,8. Uste dut aipamen horiekin nahikoa dela talde kooperatiboak gure bizitza ekonomikoan eta sozialean duen protagonismoa nabarmentzeko. Malgutasun eta egokitzeko gaitasun handia dutela erakutsi dute, eta elementu garrantzitsuak izan dira beti Gipuzkoan enpresa espiritua sustatzeko.

Zer etorkizun iragartzen du Markel Olanok gipuzkoar industriarentzat? Zer erronka datozkigu? Horiei erantzuteko behar bezain prestatuta gaude? Badakigu eredu aldaketa baten aurrean gaudena, eta orain arte arrakasta zekarten elementu lehiakorrak, horien artean faktoreen kostuak, eraginkortasuna, kalitatea eta inbertsioa, beharrezkoak izanik ere, berrikuntzan oinarritutako eredu batez ordezkatu behar direna. Jarraitu beharreko estrategia da produktibitate txikiagoa duten sektoreen egitura produktiboa maila teknologiko handiagoa duten beste

batzuetara bideratzea, eta enpresak balio erantsi handiagoa ematen duten jardueretarantz orientatzea. Horretarako, Gipuzkoak berrikuntza sistemari lotutako enpresa sektore bat dauka, eta hori zenbait parametrotan EBko batez bestekoarekin pareka daitezke. Esan dezakegu gure erronka aurrera egiten jarraitzea dela, lortutakoan oinarrituta baina disfrutatzen dugun aberastasunaren konformismoan erori gabe.

Amaitzeko, Markel Olanok ULMA Taldea ezagutzen du? ULMA Taldeko bazkideen eta langileen kolektiboarentzako mezurik? Bai. Ezagutzen dut. Diputatu nagusi izendatu nindutenetik bi hilabete igaro ez zirelarik egun oso bat eman genuen ULMA bisitatzen, Oñatiko egoitza nagusian, eta zuen kezka eta ilusionatzeko, berritzeko eta inplikatzeko duzuen ahalmena gertutik ezagutzen. Benetan hunkituta geratu nintzen lehenengo harreman horren ondoren. Hainbeste, arduradun sozialekin zein ekonomikoekin izaten ditudan solasaldietan eta harremanetan sarri askotan aipatzen dut ULMAren kasua, adibide eta erreferente gisa, gure lurraldearen barruan zein kanpoan. ULMA familia osatzen duzuen guztiontzat, nire mezuak bikoitza izan behar du, ezinbestean. Alde batetik, nire errekonozimendua eta zorianak denon artean aurrera atera duzuen errealitate sendo horregatik. Eta, bestetik, animoa, hartu duzuen berrikuntzaren, lehiakortasunaren eta talde lanaren bidean jarraitzeko. Hori da ULMAren etorkizunari eta Gipuzkoako osoaren garapenari eta ongizateari egiten diezaiekezuen ekarpenik onena.

Genero Berdintasuna

Emakume langileak, emazteak, amak, alabak, lagunak... Profesionalki haztea eta bizitza pertsonala zaintzea ez da bide erraza. Halere, gero eta emakume gehiagok ekiten dioten abenturari. Gure artean hori esfortzuaren bidez lor daitekeela erakusten duten froga ugari daukagu. Gure Negozioetan lan egiten duten hainbat emakume elkartu ditugu, dituzten kezka profesionalaz hitz egiteko, eta gehienbat gizonek zuzentzen duten lan munduan zer espero duten azaltzeko.



Jone Zamakola
ULMA Agrícola
– (JZ)



Josune Busturia
ULMA Orga Jasotzaileak
– (JB)



Nuria Letamendi
ULMA Construcción
– (NL)

ULMA Taldean gaur egun emakumeak %25 gara, eta MCC mailan ez gara %40ra iristen; datu horiekin, zuen iritzi, lan eta lanbidearen arloan gizonen eta emakumeen artean egiazko berdintasuna dago?

>> **JZ:** Lan tipologia desberdinak daude eta, nire ustez, Eroskin esaterako, gizonek zein emakumeek egin dezakete lan eta, ez dakit zergatik, baina emakumeak gehiago dira gizonak baino. Industriaren eremuan gizonen gehiago egoten ohituta gaude. Pentsatzen dut kulturagatik izango dela, baina horrela da. Lehen nik enpresa pribatu batean egiten nuen lan, eta uste dut soldatetan gizonen baldintza berdinak nituela. Amatasun bajei dagokionez, ez nago bate-re ados, gaia guztiz kulturala baita. Horrez gain, beldurra egoten da beti gizonek lan egin duten tailer batean “elementu arrotz” bat sartzeko, hau da, emakume bat... azke-

nean, gizartea matxista delako, eta hori da denaren oinarria, argi eta garbi. Ni txundituta geratzen naiz entzuten dudanean kargen pisuagatik eta antzekoengatik emakume batek ezin duela... ulertzen dut industri enpresa batean karga asko mugitu behar dela... baina, gaur egun, arriskuak prebenitzeko legeak ezartzen du pisu handiko piezak manipulatzeko debekatuta dagoela, gizonen gehiago zein emakumeen gehiago, eta horregatik uste dut hori ezin dela desberdin jokatzeko puntu bat izan. Benetan, ez dut ulertzen inork horrelako piezarik manipulatu behar izatea, ez gizonen ez emakumeen, horretarako makinak egonik; orduan, gaia kulturala da. Enpresak ez daude prestatuta, eta uste dut emakumeen artean ere ez gaudela prestatuta; zergatik ematen du atenezioa biltegian emakume bat bere lana egiten ikusteak?, txipa aldatzen hasi behar dugula uste dut, denok,

baita geuk ere, izan ere, une jakin batean lan berri batera aurkeztu behar baduzu, ematen du emakumeentzako lan batera jotzeko joera izaten dugula, hautatu egiten dugula. Inoiz ez zaizu bururatzen prentsan lan egiteko postu batera aurkeztea.

>> **NL:** Ados nago hemen esan denarekin. Bai uste dut gai kulturala dela. Aspalditik datozen kontuak dira, baina egia da gero eta emakume gehiagok jotzen dutela Lan-bide Heziketara edo lehen gizonen gehiago jotzen ziren karreretan sartzen direla, nahiz eta oraindik portzentaje horiek ez diren aski. Orain arte, LH egiten zuten emakumeek batez ere administrazio kontueta-rako egiten zuten... Ni neu lehen soilik gizonek egiten zuten karrera batetik nator, Ingeniarizatik. Gu ikasten hasi ginenean 100 lagun ginen ikasgelan, eta horietatik 10 bakarrik emakumeak. Hori gero industri

ingurunean ere nabaritzen da. Gainera, oraindik ere badago jendea pentsatzen duena: honek zer uste du?... umeak izango ditu, ez dakit zenbat baja hartuko dituen, lana murrizteko eskatuko dit...

>> **IM:** Eta txip hori aldatu egin behar da: guk ez badugu umerik izaten, nork izango ditu?

>> **JB:** Kontu bitxi bat azpimarratu nahi nuke, ULMA Taldean lanean ari garen emaku-

“ULMA lanean ari garenen emakumezko gehienak Administrazioan dihardugu”

emakumea edo gizona izan, hartu egin zaituztetela. Baina emakumeek ez dugu postu horietarako izena ematen.

>> **IM:** Uste dut gaur egun emakumeari edo gizonari eskatzen zaion exijentzi maila desberdina dela, ez? Iruditzen zait emakumeok lanean gehiago demostratu behar dugula gizonak baino. Eta haurdunaldien kasua, bai uste dut emakumeentzako handicap dela. Haurrak izateko adinean bazaude, nolabait esateko, enpresaria pentsatzen ari



Irene Alberdi
ULMA Handling Systems
– (IA)



Irene Moreno
ULMA Hormigón Polímero
– (IM)



Eider Goñi
ULMA Packaging
– (EG)



Ainhoa Uranga
ULMA Piping
– (AU)

meen %25 inguru horretatik %99 administrazioko postuetan ari gara. Ez gaude zuzendaritzan, hor apenas dagoen emakumerik. Tarteko postuetan gero eta emakume gehiago dago, baina horiek ere ez dira asko. Eta auzi hori, nire ustez, heziketa kontua da. Uste dut pixkana-pixkana aldatzen ari garela. Emakumeak orain industriako karrera eta LH2 gehiago ikasten ari gara, baina gero txipa aldatzea falta zaigu, beste postu batzuetan ere sartu nahi izateko. Erosoago egiten zaigu administrariaren postuan esertzea prentsako langilearen postu baten jartzea baino. Ikasketetan jauzia egin dugu, baina orain lan arloan salto egitea falta zaigu. Geure buruarengan konfiantza izan behar dugu, eta hori borrokatu eta gureganatu egin behar dugu.

>> **AU:** Uste dut gai kulturala dela. Eboluzionatzen ari gara. Orain %25 gara,

eta orain dela 10 urte gutxiago ginen. Uste dut zati handi bat dela guk ez dugula izena ematen historikoki gizonak aritu diren postuetarako. Ni, esaterako, tailerrean aritzen naiz, eta azkenean kontua nahi izatea da. Niri inork ez dit eragozpenik jarri emakumea izateagatik. Emakumeek izena ematen badute eta balio badute, uste dut berdin hartuko dituztela. Esan dudanez, ni inork ez nau baztertzen, alderantziz, lagundu egiten didate, eta ez dut laguntza hori diskriminazioa balitz bezala hartzen. Niretzat, pieza bat mugitzen ari banaiz eta gizon bat laguntzera etortzen bazait, hori ez da diskriminazioa, besterik gabe laguntzea da eta kito. Pertsonak hartzen dira, ez gizonak edo emakumeak. Jendea hartzen denean ez da pentsatzen haurdun geratuko den ala ez. Ni hartu naute, eta ez dut uste pentsatu dutenik haurdun geratuko naizen. Pentsatzen dut pertsona batek balio badu,

da baja noiz hartuko duzun... eta azkenean baja horiek aurreikusi egin daitezke, eta gaur egun laguntzak jasotzen dituzte. Okerrago dira istripuagatik sortzen diren bajak. Lankide batzuek auto istripu bateagatik hartu dute baja, sei hilabetez, eta horiek ezin dira aurreikusi. Amatasunagatik hartzen den baja, berriz, aurreikusi egin daiteke, ia bederatzi hilabete lehenago dakizu, eta egoera aurreikusi eta departamentua antolatzeko denbora dago. Beraz, gaur egun handicap da, baina ekidin daiteke, eta gainera kontzientziario gaia da.

“Historikoki gizonezkoek bete dituzten lanpostuetarako ez dugu izenik ematen”



Kontzientziatu egin behar dugu, gizonen batez ere, emakumeek ez badugu haurrik izaten... non egongo dira gure etorkizuneko bezeroak? non etorkizuneko gure langileak? gure gizartea? Izan ere, auzia hori bezain oinarritzkoa da.

>> IA: Tira, uste dut gauzak ez direla erabat zuri edo erabat beltz. Uste dut lan elkarriketa batean ez dela emakumea bazterten, elkarriketa batean seguruenik curriculuma irakurri ere ez da egiten. Ez dut esan nahi 100 dela edo 0 dela. Bai uste dut dauden konnotazio kultural batzuen ondorioz emakumeen rola eta gizonen rola daudela eta, azkenaldian gai horretan gehiago nahasten bada ere, oraindik ere bereizketa hori existitzen dela, nahiz eta nik ez dudan zuzenean horrelakorik bizi. Egia da haurdunaldiaren gaia beti mahai gainean jartzen dela eta, aldi baterako, arazoa izan daitekeela. Nik, orain dihardudan arloko arduraduna naizen heinean, hiru emakume izango ditut aldi berean amatasun bajarekin, eta ni neu ere amatasun baja batetik etorri berri nago; orduan, ezin dut esan ez dela arazo bat, neuri arazoa gertatzen ari zaidalako postu jakin batzuk betetzea, baita hainbat hilabete lehenago abisatuta ere. Baina, berriro diot, gaia kulturala da: iparraldeko herrialdeetan bezala gertatuko balitz, amatasun baja izan beharrean aitatasun baja edo senidetan baja balitz, edo dena delakoa, hau da,

enpresariari edo arduraduneri planteatuko balitzaie modu berean edo probabilitate berdinarekin "honek 8 hilabeteko baja hartuko dit", edo "honek lanaldia murrizteko eskatuko dit", edonor izanik ere, arazoa bukatu egingo litzateke, guztiok baldintza berberetan egongo ginatkeelako lan elkarriketa bat egiterakoan. Hemen, kulturalki ez da halakorik existitzen; lanpostuen mailaketan zenbat eta gorago igo aitatasun bajarena ez da ikusten, ahaztu horrekin, gizonen artean, ez baita ulertzen. Uste dut ez litzatekeela ulertuko zuzendari batek edo arduradun batek lanaldiaren murrizketa hartzea.

>> NL: ULMA Construcciónen, oraintxe bertan, kudeatzaile bat dago aitatasun baja hartuta, eta ez dakit ULMA Orga Jasotzaileetan ere aitatasun baja hartu duen baten bat ez ote den egon. Dena dela, egia da oso portzentaje txikia dela, eta maila jakin batean egiten dela. Horregatik diot gaia kulturala dela, gizonen ez dutelako hori barneratuta, ezta emakumeek ere...

“Lanpostuen mailaketan zenbat eta gorago igo, gero eta gizonetzko gutxiagok aitatasun baja hartzen du”

>> JB: Horixe da, emakumeek ere ez. Nik ez nuke nire amatasun baja aldatuko senarrari emateko, ez nioke plazer hori emango, benetan. Argi daukat ikuspegi pertsonaletik, ez dakit emakumea izanda eta gizona izanda berdin pentsatuko nukeen, baina neuri, ama naizen heinean, baja horrek hain atsegin handia eman dit, orain, aukera banu, ez nuke aldatuko. Oso argi daukat, ez nioke senarrari utziko.

>> IM: Beharbada gaur egun dugun lau hilabeteko eszedentzia ez, baina lanaldiaren murrizketa... Uste dut ama izateko aukera ez nukeela aldatuko, baina gainerakoa... esan nahi dut umeak hazi egiten direla, eta abar.

Gaur egun, lanpostu beraren barruan, zer balio desberdin eman ditzake emakume batek gizon batek eman ditzakeenekin alderatuta? Alderik egon daitekeela uste duzue? Emakumeak gehiago demostratu behar du?

>> IA: Galdera zaila da. Orokortasun guztiak bezala, zaila da. Gehiago eskatzearena, ez dakit, nire eremuan uste dut berdin exijitzen dela. Norberaren gaitasun pertsonala da kontua; esaterako, ni ingeniarien artean ibiltzen naiz eta, lanpostu jakin batera edo erantzukizun jakin batzuetara aurkezten den ingeniaria, gizona edo emakumea izan, bada, nik uste dut gaitasun pertsonalaren

“Gizartea bera ez dago ondo antolaturik lan ordutegiak familiaren bizitzarekin bateratzeko”

arabera funtzionatzen dela. Pentsatzen dut lanpostu batzuetan badagoela emakumeak xehetasunak gehiago zaintzen dituen ideia, baina uste dut gehiago dela pertsonaren izaera emakumea edo gizona izatea baino.

>> **IM:** Ados nago. Lanpostuari ematen diot zuna gehiago da pertsona mota, nortasuna eta izaera, gizona edo emakumea izatea baino. Zure gaitasuna, jarrerak... nik ez nuke asmatuko esaten zer eskain dezakegun gehiago emakumeak izanik gizonak izanik baino. Beharbada sakrifizioarako gaitasun handiagoa... burura etortzen zait hori, baina ez dakit. Beharbada konprometituagoak gara, baina berriro diot, zerikusi handiagoa dauka pertsonarekin izaerarekin emakumea edo gizona izatearekin baino.

>> **AU:** Nik ere uste dut pertsonaren arabera dela. Uste dut gehiago emateko ez daukala zerikusirik emakumea edo gizona izateak, pertsona bakoitzaren arabera da, nola pentsatzen duen, nola jarduten duen. Berdintasunaz hitz egin nahi badugu, ezin gara hasi esanez: “ezin dugu”. Lehengo egunean gizon batek esan zidan: “Emakumeek gehiago erreparatzen diotuzue xehetasunari”, eta nik erantzun: “Ez, emakume batzuek gehiago zaintzen dute xehetasuna, eta beste batzuek ez”, horregatik, batzuk sakrifikuagoak dira eta beste batzuk ez; pertsona da, ez sexua.

>> **NL:** Nik ere uste dut lanpostuari benetan ematen diona pertsona dela. Geure buruari gehiago exijitzen diogunak geu gara, emakumeok.

>> **EG:** Ados nago. Azkenean, eskain dezakezuna gehiago dago pertsonaren menpe gizona edo emakumea izatearen menpe baino. Bakoitza bere bertuteekin eta akatsekin. Gehiago demostratu behar dugun ala ez, nik behintzat, orain nabilen ingurunean, ez dut sentitzen gehiago demostratu behar dudarik. Lanean hasi nintzenean proiektua hainbat enpresatan egitea egokitu zitzaidan, eta han bai sentitu nuen, ez gehiago exijitzen dizutela, baina bai zalantzan jartzen zaituztela, emakumea izateagatik, eta gaztea izateagatik, zalantzan jartzen dute gauzak beraiek bezain ondo egingo dituzun, eta abar. Lan taldean nindoan, beste gizon batzuekin, eta entzuten nituen beste kide batzuei buruz esaten ez zituzten gauzak niri buruz esaten zituztenak, hau da, zalantzan jartzen ari banindute bezala, eta egiazki gauzak behar bezala egiteko gai nintzen.

>> **JZ:** Ados nago neu ere. Ez dut ikusten emakumeari gizonari baino gehiago eskatzen zaionik, uste dut postu bakoitzaren arabera dela; postu bakoitzean eta postu bakoitzari guztioi eskatzen zaie gehiago, baina ez dut desberdintasunik sumatzen; eta halaber uste dut oso gai pertsonala dela postuari gauzak eranstea.

>> **JB:** Bada, ni ez nago guztiz ados. Uste dut genetikoki argi dagoela emakumeak eta gizonak desberdinak garela, eta horrek ez du ezer txarrik, iruditzen zait. Uste dut desberdinak garela, eta bakoitzak gure generoaren berezko ezaugarriak ditugula eta denboraren poderioz, eskerrak, gauza batzuetan behintzat homogeneizatzen ari direla, ze beste batzuetan ez. Nik, zuek baino pixka bat zaharragoa izanik, esango dizuet diskriminatuta sentitu ez banaiz ere, garai batean bai zegoela alderik, batzuetan norberak bere buruari exijituta; ni emakumea lanean hasi zen boomaren

garaian hasi nintzen, eta orduan lanearako heziketa bat erakutsi behar zenuen, eta egiazki inork ez zigun horrelakorik erakutsi. Bai, ikastera bidaltzen gintuzten, baina damak izateko hezten gintuzten eta zeurean ona izateko eta dena oso ongi egin zenezakeela erakusteko, eta gainera “emakumea izatearen ofizioa” ere ongi bete zenezakeela erakusteko. Lagunekin komentatu ohi dugu, nire adin eta belau-naldiko lagunekin esan ohi dugu hori; beharbada zuek ez duzue horrela ikusten, eta pozten naiz, gazteagoak zaretelako eta lanean, lan munduan, modu naturalagoan hasi zaretelako, baina nik uste dut baietz, emakumeek, ez kanpoko exijentziagatik, norberaren exijentziagatik baietz, pixka bat gehiago jartzen dugula... “Ez dadila nabaritu emakumeak garela”, inork ez dezala motiborik izan gure lana okerrago dagoela esateko... Nik hori bai sumatu dudala, ez ULMAn zehazki, baina beste leku batzuetan bai.

>> **IM:** Gure amak beti kontatzen du zu bezala lanean hasi zenean, 70eko urteetan, gaizki ikusita zegoela ama batek lan egitea, eta are gehiago, ez dakit Gizarte Segurantzaren zen, primak ematen zirela emakumeak behin ezkondu eta gero lanari uzteko eta postura ez itzultzeko. Edozein gizonak baino gehiago demostratu behar zuela, etxea gobernatzeko bazekiela, seme-alabak zaindu eta, gainera, lana inoiz ez huts egin, bere lekuan egon eta edozein gizonak baino hobeto egin behar zuela; gai horretan, denbora asko igaro da eta gauzak asko hobetu dira, baina oraindik asko dago hobetzeko; dena dela, egia da une gogorrik izan direla, eta orain gauzak hobetzen ari direla, baina gehiago hobetu behar direla uste dut, baita ULMAn ere. Ingurunea ulerkorragoa bada ere, batez ere gai horietan ezin kexatuko gara, baina gizarte mailan gauza asko dago egiteko.

ULMAn bizitza pertsonala eta lanekoa uztartzea bultzatzen dela uste duzue? Zer egin daiteke gai horietan aurreratzeko?

> Mahai-ingurua

- >> **JB:** Gai zaila da, oso zaila. Niri iritziz, gizartea oro har, gu bizi garen gizartea, gaizki antolatuta dago familiek dauden lan ordutegiak ongi eramateko, batez ere haur txikiak dituzuenok. Ez dira seme-alaben ordutegiak bateragarriak. Gainera, egia da, ez dakit gure nahiagatik edo gizarteak behartzen duelako, haur guztiek eskolako ordutegiaz gain eskolaz kanpoko ekintzen ordutegia ere badutela: kirola egitera joaten dira, ingelesa, musika... orduan, ez dakit seme-alaba perfektuak hezi nahi ditugun eta denetik dakitenak, edo benetan beharrezkoa dena dakitenak. Gizarteak horrela heztera bultzatzen gaitu, prestakuntza hori ematera, gero lan arloan ahalik eta ondoen sartzeko. Jakina, hori ez dator bat gaur egun dauzkagun lan ordutegiak: zortzi orduko lanaldia eta bazkaltzeko ordu bat, gutxienez bederatzi ordu dira, eta hori hurbil bazabiltza. Gainera, legez, umeak ezin dituzu haurtzaindegian zortzi ordu baino gehiago eduki, eta ondorioz... Orduan, zail samarra da. Nik uste dut gizarteak oro har, gobernuak, ez dituela familiek zaintzen, ez bakarrik emakumeak, familiek oro har esan nahi dut.
- >> **JZ:** Askotan arazoa izaten da guk lan arloan gizonekin konparatu eta berdindu nahi dugula, baina ez ditugu etxeko erantzukizunak gaintik kentzen, eta etxeak diodanean seme-alabak, ezkontidea... esan nahi dut. Etxea minienpresa bat balitz bezala da: hornidurak, hozkailua hutsik dagoela, haurtzaindako arropa, medikua... jakina, azkenean horrela gaude... dena iritsi behar dugu eta, orduan, askotan "zertan lagunduko dizut?" entzuten duzunean... lagundu ez, hau erdibana da.
- >> **EG:** Gai zail samarra dela uste dut neuk ere. Adibidez, gure ama, ni jaio nintzenetik, beti aritu da lanean. Etxean ez zegoen amona beste laguntzarik, uste dut hark zaintzen gintuela ahizpa eta biok. Orduan bazen babes bat, eta orain babes hori haurtzaindegia da. Jakina, gaur egun daukagun martxarekin, babes ona behar dugu. Orain lanaldi murrizketa hartzea planteatzen ari
- den jendea, laneko bizitza eta bizitza pertsonala bateratu ahal izateko, daukan lanpostuaren eta etxean sartzen den diruaren menpe dago. Oinarri ekonomiko sendoa behar duzu. Eta, hemen esan den bezala, gobernuak ere ez du askotan hori egin ahal izateko behar besteko laguntzarik ematen. Estatistika asko dabil hortik zehar, baina zaila izaten jarraitzen du, eta gobernuak ez ditu gauzak errazten.
- >> **NL:** Ez da soilik gobernuaren gaia, enpresetan bertan, esaterako, ULMA Taldean ordutegi malgua duenak bederatziak laurden gutxiagoan fitxatzen du, ez? Haur baten eskolako ordutegia bederatzietan hasten bada, jada ez daukazu bederatzia laurden gutxiagoan fitxatzeko aukerarik. Hau da, bederatzia eta laurdenetan fitxatzen uztea hain gauza erraza izanik, ordu laurden edo ordu erdi gehiagoko malgutasuna edukitzea, bada, hori ez da gobernuaren kontua. Etxetik hasita, ULMAtik hasita, gutxieneko uztarketa hori egin ahal izateko trabak aurkitzen hasten bagara... Gaur egun lan egiten dugun bezala, dauzkagun ordutegiak dauzkagula, uztarketa ezinezkoa da. ULMA Taldean bada enpresarik horri buruzko arautegirik edo zerbait egin duenik?
- >> **EG:** Jende batek lanaldi erdia hartzen du, baina beste jende batentzat aukerarik ere ez dago bere postuan lanaldi erdia hartu ahal izateko.
- >> **NL:** Uste dut gauzak pixka bat lotuago egon behar liratekeela, ez joateu zu bakarrik lanaldi murrizketa, baimen bat, ez dakit zer eskatzera, jakin gabe zer etorriko zaizun. Ez dakizu zer gerta daitekeen, eta esaten duzu "Ai ene, ea zer aurkitzen dudana".
- >> **IM:** Askotan aukeratu egin behar duzu: edo profesionalki hazi, edo familiarekin aritu. Gauza triste da seme-alabak ekartzea egun osoa haurtzaindegian edo ikastolan egoteko, eta gero gainera partikularretara joaten dira... Eta azkenean zuk ez dituzu hezten. Beti beste pertsona batzuekin egoten dira, gu denbora guztian lanean ari garelako. Uste dut gizonak "bateratu egin behar dut neure bizitza pertsonala, familiarra..." esaten ez duen bitartean ez dugula aurrera egingo. Enpresetan eskaerak egin arte, gizonentzat %50 eta emakumeentzat %50 eskatu arte, txipa maila horretaraino aldatu arte, ez dugu ezer egingo. Azkenean, gu gara denbora guztia pentsatzen ematen dugunak lanaldia murrizteko eskatuko dudana, halako orduetan sartu behar dudala bestela ez naizelako iritsiko... Gizonak rol horri heldu arte, eta gaur egun ez dauka ardura hori, ez da ezer lortuko. Askotan esaten badigute ere zertan lagun diezaguketen, "Nolatan zertan lagundu?" "Ez al da ba zure etxea baita ere?", "Ez al dira zure seme-alabak?". Izan ere, oraindik ere etxean zer egin behar duten esan egin behar diezu.
- >> **AU:** Oro har egoerak horrelakoak dira, baina nire kasuan ez. Haurtzaindegia aukeratu nuen, eta ez nuen lanaldia murriztea pentsatu. Beti jartzen duzu balantzan zure bizitza pertsonala eta lanekoa, eta pentsatzen duzu aitona-amonak hor daudenez... Jakina, gero gai ekonomikoa dago. Hau da, nik ez dut gizonaren kezurik, baina onartzen dut normalena ez dela hori.
- >> **IA:** Eta gero dago bakoitzak bere postuan zer eginkizun betetzen duen, izan ere, ez da hain erraza hartu eta lanaldia murrizteko eskatuko dut esatea. Ezin duzu lau ordu lan egin eta ospa egin, ez da hain sinplea. Zure bizitzako ordu asko inbertitu duzu preskakuntza jasotzeko eta honaino iristeko, eta aukerari bat-batean pasatzen uztea...
- >> **AU:** Nire iritziz, gakoa da bikoteak hitz egitea eta pentsatzea: guk honela nahi ditugu gure seme-alabak hezi, eta bietako batek, berdin dio zeinek, lanaldia murriztea erabakitzea.

"Askotan erabakitzea beste erremediorik ez duzu: edo profesionalki hazi edo familiari emana bizi"



*“Lehen,
hezkuntzari garrantzia
ematen zitzaion.
Orain,
umeak hartzandegian
hezi ditzaten nahi dugu”*

>> **NL:** Eta erabakitzeke orduan, lanaldi erdia, oporrik gabe, lanaldi osoa eta hartzaindegia, oporrak... alegia, jendearen %90ek, gizon edo emakume izan, hau aukeratu du: lanaldi osoa, oporretarako; beraz, umea hartzaindegira. Eta hori kontuan hartu gabe lanaldiaren murrizketa eskatzeak profesionalki zer ondorio ekar dezakeen, postua aldatzea gerta baitaiteke, edo nik zer dakit. Halere, pertsonen %90 ez gaude prest ekonomikoki ezer galtzeko. Ez oporrrak, ez automobila, eskiatzera joatea... onartu beharra dago, ez gaude prest.

>> **AU:** Hori gizarteagatik da, garrantzia ematen diogu ematen diogunari. Gaur egun beste gauza batzuei ematen zaie garrantzia. Lehen heziketari ematen zitzaion garrantzia, eta orain nahi dugu beste batzuek gure seme-alabak hartzaindegian hezteko, aitona-amonekin. Guk ez dugu denborarik, baina dena eduki nahi dugu, oporretan joan, automobila eduki, pisua eduki... dena nahi dugu.

>> **JZ:** Lanetik irteten garenean guretzat denbora ere eduki nahi dugu. Neurekoia izanda, denbora pixka bat ere neuretzat nahi dut.

>> **IA:** Jakina, behar dugulako: zu ez bazaude ondo, ingurukoak ere ez dira ondo egongo. Enpresa mailan, nik uste dut politikaren bat susta daitekeela, batez ere ekintza jakin batzuetan.

>> **IM:** Lan asko etxetik egin daitezke. Aldatu egin behar da lan egiteko enpresan presentzia eduki behar izatearen txipa. Helburuen arabera lan egin daiteke, edo emaitzen arabera. Beste ideia bat litzateke ULMA Talde osoarentzat hartzaindegia bat edukitzea, horrek eskaera handia dauka. Gure Negozioan, Kontseilu Sozialean, gaia atera da jada. Zer gertatzen da? Urtean zehar hartzaindegiak ditugu, baina uztailean, abuztuan lan egin behar dugunean... ez dago hartzaindegirik. Horrelako gauzak bideratu egin behar dira.

>> **NL:** Soluzio lokalak planteatzen ari zarete; nik ordezkaritza batean egiten dut lan...

>> **IM:** Ondo da; zure kasuan, ordu-tegiaren malgutasuna egoki litzateke, ezta? Daukazu lan motaren arabera, lan presentziala izan beharrean emaitzen arabera lan egitea... gaur egun jende askok telefono mugikor eta ordenagailu eramangarri bate-

kin edozein lekutan egin dezake lan. Txipa aldatu behar da, berehala gainera! Ados ordezkaritzetan ez duela funtzionatzen; baina beste maila batzuetan ere berdin gertatzen da, esaterako bazkari txartelarekin.

>> **NL:** Oñatin hartzaindegia jartzeak bertako arazoa konponduko luke, baina ordezkaritzetako ez.

>> **IA:** Bai, baina denei eman ezin zaielako, ez duzu ezer egingo?

>> **NL:** Konponbide lokal egokia iruditzen zait. Niri, esaterako, hobeto etorriko litzaidake ordu-tegi malgua, nire egoera zehatzetan hartzaindegiak ez lidakeelako ezer konponduko.

>> **JZ:** Errazagoa dirudi aldaketa egin eta ordu-tegia malgutzea hartzaindegia bat ipintzea baino.

>> **IA:** Lehenera itzuli gara: postuak eta postuak daude, jende bat dago postu jakin batzuetan lan egiten duena, txandaka, eta seietan sartzen bazara, seietan sartzen zara. Askok jota txanda alda daiteke. Batzuek ezingo dute etxetik lan egin... Baina jen-

> Mahai-ingurua

dearen lana antolatzerakoan malgutasuna eduki behar da, baina diskriminazioak sortu gabe, azkenean zu emakume eta ama zarelako hainbat abantaila badauzkazu zu irteten zaren orduetan gimnasia joatea gustatzen zaion lankide gizonetakoak baino, diskriminazioa sortzeko arriskua dago. Uztartekak, izan ere, seme-alabarik ez duen jendearekin ere egin behar da, ez? Bere familiarekin, bere bizitza pertsonalarekin. Denbora horixe bikoteari emateko, gimnasia joateko, mendira igotzeko. Dena dela, bai, egia da zaila dela.

Uste duzue gaur egun emakumearen rol guztiak batera daitezkeela: ama, bikotekide, langilea... Zerbait sakrifikatu behar da?

>> **IA:** Uste baietz, sakrifikatzen duzula. Egoerak eta egoerak daude. Uste dut gizonak ere hasi direla sakrifikatzen. Baina lehen esan dudana: postu batzuetan beste batzuetan baino gutxiago sakrifikatzen da, edo errazago ikusten sakrifikatu ahal izatea. Baina bai, uste dut sakrifikatzen dela, hau edo hura aukeratu behar baituzu. Zure bizitzako denbora asko ikasten eman duzu, eta pentsatzen dut oso zaila dela nolabaiteko geldialdia egitea horrenbeste denbora inbertitu eta gero. Dena korrika eta presaka egiten saiatzen zara, eta beharbada egiten duzu, baina gaizki. Presa ez da kide egokia. Azkenean ez zarela denera iristen iruditzen zaizu, eta iristen zarenera ez zarela behar bezala iristen. Beharbada emakumeok gure buruari ezartzen diogun exijentziatik da. Autoexijentzia horri egin beharreko lan eta zeregin guztiak gehitzen badizkiozu, zaila da dena onik ateratzea.

>> **IM:** Lehengo egunean artikulu bat irakurtzen ari nintzen eta Super Womanaren sindromea agertzen zen, hau da, azkenean dena egin nahi duzu, lana ehuneko ehunera, bizitza pertsonala ehuneko ehunera... dena hain ongi egin nahi duzu, azkenean autoexijentzia bat sortu dugu, eta nik uste dut sindrome hori existitu egiten dela, eta emakumeen ehuneko hogeita hamarri era-

giten diola; gure autoexijentziaren maila altuagatik da, eta horregatik oso zaila da laneko bizitza eta bizitza pertsonala uztartzea, ama izan zein ez izan. Bizi garen gizartean lanari garrantzi handia ematen diogu.

>> **JB:** Hogeita bost urte edo gehiago daramat lanean eta, tarte horretan, gauzak ez direla asko aldatu ikusten dut. Okerrena ez da asko ez aldatzea, okerrena da emakumea dela gehien galtzen jarraitzen duena. Inguruko jendea ikusten dut, ilobak, lagunak... eta ikusten dut famili ingurunean gehiago parte hartzen dutela, seme-alabekin gehiago parte hartzen dutela, adibidez, esaten dute: nik eramaten dut paseatzera, ni joaten naiz parkera, mendira edo bizikletan ibiltzea... Baina etxeko lanak, doi-doi, egoera berezietan. Guk, adibidez, exijentzia eduki dugu seme-alabak garbi baino garbiago edukitzeko, etxean hauts tantarik ez egoteko, eta bazkaria behar bezala prestatzeko, lehenengo platerarekin, bigarrenarekin eta postrearekin... Orain exijentzia hori lasaitu egin da eta azpikontratatu egiten da, eskerrak.

>> **IM:** Azpikontrata hori nork betetzen du? Baietz emakume bat izan?

>> **JZ:** Bai, normalean zu arduratzen zara kontratatzeaz eta dena ikuskatzeaz eta, gainera, kontratatzen duzuna emakume bat izan ohi da.

>> **AU:** Askotan errua gurea da. Emakume asko ezagutzen dituzten egiten uzten ez dutenak: gizona etortzen da eta dena egiten diote, eta gero gizonak etxean ez duela ezer egiten esanez hasten dira. Guk bidezkoa ez den biktimismo bat ere badaramagu, guk dena egin behar dugula eta guri gustatzen zaigun bezala egin behar dela.

>> **JB:** Bai, biktismoaren kontu hori egia da, eta gainera perfektua izan nahi dugu.

>> **AU:** Gaur egun ezin da hain perfektionista izan, denera ezin da iritsi eta. Egin behar dena da lanak partekatzea.

>> **NL:** Uste dut galtzen bada galdu egiten dela, eta gainera, emakumeok, dugun heziketarik, are gehiago galtzen dugula. Gazteagoak izanda ere, gu ere etxekoandreak izateko hezi gaituzte. Hori ikusi dugu betidanik, eta aldatzeko horren kontra egin beharrean gaude. Guk beti ikusi ditugu gure amak etxean lanean dena egiten, hori bai zen Super Woman izatea, dena gero! Urteko 365 egunetan, gaixo eta bajarik hartu gabe, hiru platerako janaria, eta beti txukun, beti. Guk daukagun eredu femeni-no horrekin, laneko bizitza eta familiakoa uztartzea da Super Womanaren sindrome hori sortzen diguna, lanean onenak izan nahi dugu eta, gainera, gutxienez gure amak izan diren beste izan nahi dugu. Ezinezkoa da, egunak ez du horrenbeste ematen, ez egunak, ez gorputzak, bihotzak, buruak, ez ezer... ikasi egin behar dugu, txipa aldatu behar dugu; beharbada gure seme-alabek beste gauza bat ikasiko dute, baina uste dut ikasten ari direna dela garbitasuna azpikontratatu egiten dela, ohea ere ez baitute egiten, ez dute ezer garbitzen. Uste dut ez garela zuzen erakusten ari, ama eredu berri bat da, desastre bat, erregeak izaten erakusten ari gara, ez eran-tzukizunik ez ezer eta, orduan, errealitateak beldur pixka bat ematen du.

>> **EG:** Bat nator orain arte esandakoarekin. Uste dut gauza batzuk galtzen ditugula, hainbat gauza sakrifikatu behar direla eta, besteek esan duten bezala, ezin da denera iritsi: profesionalki ondo egotea, etxean ondo egotea, seme-alabekin ondo, bizitza pertsonala ondo... azkenean horrekin guztiarekin perfektionista izateak egundoko estresa sortuko dizu. Uko egin edo zerbait galtzen duzu, zeuk jartzen dituzu mugak, baina zerbait galtzen dela begi-bistakoa da.

>> **JZ:** Ados nago zerbait galtzen dela, eta normalean emakumeak gehiago. Argi dago bietatik batek besteak baino gehiago galtzen duela, hori beti, eta ia beti emakumea izaten da. Inoiz galtzen ez duena lana da. Beharbada lagunak galtzen dira, irakurtzea,

musika entzutea... are seme-alabak ere, baina lana ez du inoiz galtzen. Beharbada ondo ikasi behar genukeena ondo des-konektatzea eta lehentasunak jartzea da, azpikontratazioaren bidez edo bide batetik. Super Womanaren sindrome hori... izena bera ere iraingarria iruditzen zait. Akaso ikasi beharko genuke gutxiago galtzen, edo gutxiago ematen diguten gauzei uko egiten; adibidez, nire etxea garbi edukitzea, ba, gus-tatzen zait, baina beharbada ez da garrantzitsuena. Bakoitzak jakingo du beretzat zerk balio duen gutxien eta zer hautatu behar duen, hain itota ez ibiltzeko behintzat.

>> **JB:** Biek galtzen dutela uste badut ere, oro har guri, emakumeoi, gehiago galtzea egokitzen zaigu. Gure esku dago egoera aldatzea. Jakina, ez da gauza erraza, esan dizuet dagoeneko ia hogeita hamar urte igaro direla lanean hasi nintzenetik, eta antzera zaudetela ikusten dut, zerbait hobeto, baina antzera. Lanean gehiago hartzen zaituztete aintzat. Baina etxeko lanen banaketari dagokionez, oraindik asko dago borrokatzeko.

Ondo da; azken galdera Josunek esan berri duen horri lotuta dator: zein uste duzue izango dela etorkizuneko joera, datozen belaunaldiek errazago edukiko dute?

>> **JB:** Nik uste dut baietz, errazago edukiko dutela. Baina gai horretan seme-alaba arduragabeak hezten ari garelako, izan ere, etxean garbitasuna azpikontratatu egiten da, etxean erregeak dira eta, orduan, beren etxea duten egunean, ba, oso zaila izango da martxan jartzea. Martxan jarriko dira, egin egin beharko dutelako, baina ez baduzu inoiz egin, eta etxean amak nola egiten zuen ikusi baduzu ere, ez dute uste beraiei tokatuko zaiela. Uste dut emakumeok gutxi exijitzen dugula, gutxi eskatzen dugula, eta hori da gure huts nagusietakoa. Oro har oso errebindikaziozaleak gara, baina beti pixkana-pixkana errebindikatzen dugu, eta asko kostatzen zaigu helmugetar iristea. Uste nuen denboraren poderioz gauzak gehiago aldatuko zirela, baina ez da horre-

la; begira, esaterako, amatasun baja hama-sei aste dira, lehen bezala, hori ez da ezer aldatu, nahiz eta orain gizonek hamabost egun dituzten.

>> **NL:** Baikorra izan nahi dut. Uste dut hobera egin behar dugula, benetan. Gure belaunaldian ikastetxeak jada mistoak ziren. Orduan, txikitatik ohituta gaude neskak eta mutilak elkarrekin egotera. Uste dut hori nabaritu egin behar dela. Eskolan tratatu bera jasotzen dute, etxean ere ez gara hain desberdinak, neska zein mutila izan berdin hezten hasi gara, ardura berekin, eta horrek ondorio positiboak ekarri behar ditu.

>> **AU:** Neuk ere uste dut aldatu egingo dela. Gehiago erantzuten dutela... eragina handia izan dezake haurtzaindegian zortzi ordu edukitzen ditugula; gauza horiek aldatzen ez badira, pertsona horien jarrerak berdina izaten jarraituko du. Haurtzaindegian sartzen ditugu eta haurtzaindegian hezten dituzte, eskolan sartzen ditugu eta bertan hezten dituzte, baina, non dago etxeko heziketa, beti-betikoa?

>> **IM:** Neuk ere baikorra izan nahi dut eta gure esku dagoela pentsatu. Gure esku dagoena, behintzat, egin dezagun. Berritot, trazedentzia soziala eta kulturala duen gaia da, eta maila horretan aldatu behar da. Iruditzen zait gutako bakoitzak, gure hondar alea ipiniz, aldaketa gertatzeko gauzak egin ditzakegula, berdinak garela erakusteko. ULMA Taldean emakumeen ehuneko hogeita bosteko presentzia hori zuzendaritza postuetan gehiago ikusi behar da, gaur egun ez bezala... Unibertsitateko ikasketetan gizonen berdinak bagara, eta batzuetan are hobekia ere, ez da logikoa zuzendaritza postuetan emakume gehiago ez egotea. Hori ere aldatu behar da, eta horregatik seme-alabei transmititu behar diegu berdinak garela, ez dagoela desberdintasunik. Etxean bertan hezi.

>> **IA:** Zer nahi dugun eta zer ikuspegi dugun ere bada kontua. Azkenean, zure bizitzan une bat iristen da zeinean beste gauza

batzuetan pentsatzen hasten zaren, ez bakarrik zure lanean. Balantza non ipintzen duzu? Uztarketa sozialki eta kulturalki guztion gaia den unean, orduan egongo da berdintasuna zer nahi dugun izan askatzeko. Baina gaur egun kontu zaila da hori.

>> **JZ:** Beti hitz egiten dugu seme-alabez, baina, imajinatu duzue nola uztar daitekeen adinduen gaia? Izan ere, adinengatik, jada egokitzen zaigu... Haurren uztarketa moldatu egin daiteke, baina gurasoekin zer gertatzen da? Adibidez, ni naiz neska bakarra, eta badakit neska izateagatik neuri egokituko zaidana, eta horrek kezkatu egiten nau, gaia ez delako kontuan hartzen, ez da ikusten, ez ondo ez gaizki. Ez dago haurtzaindegirik; azpinkotrata daiteke, baina egoitzetan ez dago lekurik, eta hor bai dela zaila hilaren amaierara iristea.

>> **NL:** Bai, eta gainera hori heziketatik dator. Seme-alabei erakutsi ahal izan diet zaintzen dituen aita edo ama izan daitekeela, baina gurasoei ezin diet erakutsi zainduko dituen anaia dela. Hori bai dela elementuen kontra borrokatzea. Gure gurasoek beti izan dute argi beren gurasoak zaindu dituztela, tira, gure amek batez ere, eta eurek ere gauza bera espero dute gugandik, eta hori gogorra izango da.

>> **JB:** Gauza bakar bat esan nahi dut, argi izan behar dugula asko kostatuko zaigula. Oraindik ere diskriminazio positiboa indarrean dagoela erabat. Estatuko gobernua esaterako, urruti joan gabe, emakumeak %50 edo pixka bat gehiago direlako harro dago... hori da diskriminazio positiboa. Ez dut esan nahi ez dutela balio, esaten dut nahita aukeratu direlako, erabili dezakegun tresna bat da, nolabait ere, balio dugula erakutsi beharko dugulako. Baita geure buruari ere.

“Seme-alabekin ordutegiak bateratzearen gaia aipatzen da. Eta zer gertatzen da gure nagusiekin; nork zainduko ditu?”

gutarren argazkiak eta historiak

“Luis Maiztegi, ULMA Construcción, Seilu bildumazalea”




1840an Ingalaterran seilua agertu aurretik, postak hainbat mende zituen martxan, baina, orduan nola bidaltzen ziren gutunak? Gutunak, gaur egun ezagutzen ditugun bezala, ez ziren gutun azalen barruan bidaltzen. Idatziak ezkoz eta bidaltzailearen zigiluaz ixten ziren. Idatzien azaletan hainbat azalpen ematen ziren, eskuz edo marka batzuek, garraioa kobratu ahal izateko. Benetako iraultza ez zen seiluaren agerpenegatik etorri, baizik eta garraioaren kostua gutuna bidaltzen zuen pertsonak ordaintzen zuelako, eta ez hartzen zuenak. Postaren Historia 1850eko urtarrilaren 1ean hasi zela esan daiteke. Lehenengo gutunak egin zuen bidea estudiatu egiten da, nola tasatu zen, zenbat denbora behar izan zuen helmugara iristeko... 1840ko maiatzaren 6an ipini zen zirkulazioan munduko postako lehenengo seilua: Victoria erreginaren penny beltz ospetsua, eta gero, hilaren 8an, 2 pennyko urdina. ROWLAND HILLeK posta sistema aldatzea lortu zuen, gutun arruntaren garraioa penny batekin parekatuta, egin beharreko bidea edozein izanda ere. Arrakastaren ondorioz, Hill Sir izendatu zuten, eta Parlamentuak 20.000 liberako saria eman zion. Seilua itsasteak esan nahi zuen garraioa ordainduta zegoela.

“Istoria guztiak bezala, nirea aitak eskolako txikitako koadernoan oparitu zidanean hasi zen, zeinean seilu bilduma egina zuen, Oñatiko ebanista zen aitonaaren aroztegiko lekedaz itsatsita. Seiluen balioa sentimental baina ez zen, ez baitago askatzeko modurik. Denborarekin, neuk neure albuma eskuratu nuen, eta bertan itsasten nituen lortzen nituen seiluak. Pixkana-pixkana, zaletasuna formalizatzen joan zen: Correosko Maitek, pazientzia handiz, seiluak gordetzen zizkigun, eta jaulkipen berri bat ateratzen zen bakoitzean seilua gutun azalean sartu, abisatu eta kobratzen zigun. Halako batean albuma aldatzeko ordua iritsi zen. Beste bat erosi behar izan genuen, torlojuduna, orri zuriak gehitzen diren horietakoa. Maiteren lankidetzara ere amaitu zen, seguruenik gurekin “aspertuta” egongo zelako. Gaztaroan pazientzia amaitu zitzaigun, baita seiluak askatu eta album berrira pasatzeko gogoia ere, eta zaletasuna pixka bat galdu zen. Handik urte batzuetara gaiari heldu nion berriro, eta orduan erabaki behar izan nuen, alde batetik, falta ziren urteak nola berreskuratu, eta, bestetik, zer bilduma mota nahi nuen eta zer herrialde, ordu arteko bilduma orokorraren orde (denetik zegoen) beste zehatzago bat egiteko. Klasikoen alde egin nuen, serioenak zirelakoan edo: Frantzia, Suitza, Britainia Handia... Beste batzuk ere gehitu ziren zerrendara, Alemanian, Kanadan, Australian eta Zeelanda Berrian hasi nituen harreman eta trukeen ondorioz. Herrialde batzuekin ezinezkoa izan da trukerik egitea. Aukeratuko nituen urteak joan den mendeko bigarren zatikoak izatea erabaki nuen, gaur egun arte; kasu batzuetan erabiliak, beste batzuetan berriak, eta inoiz bietatik ere. Hori guztia CECA OÑATI elkartearen sorreraren ondorioz etorri zen; bertan, bakoitzak herrialde eta gai jakin batzuei ematen zien arreta. Garai hartan nik ez neukan gai zehatzik erabakita, batzuek trenei erreparatzen zieten, txakurrei, ontziei, telefoniari... Zer aukeratu? Azkenean gai bat erabaki nuen, zer aukera izango zuen jakin gabe, baina oso oñatiarra: txantxikuak. Pixkana gure bildumak hobetzen joan ziren, eta hainbat proposamen ere egin ziren, esaterako, posta zerbitzu propioa sortzea, edo Arantzazuko Ama Gipuzkoako zaindari izendatu zuteneko seilu bat jaulkitzea. Hainbat ekintza antolatu genituen, erakusketak, CARLOS VII hautagaiaren 1875eko DUROA berriro ateratu genuen, Hijos de Juan de Garayn egon zen txanpon etxean egina, Makalena K.J.B.ren 25. urteurreneko hitzaldiak, Milurteko Berria ospatzeko dominak, Aita Madinaren omenezko dominak eta seilu pertsonalizatua... Egoera berrietara moldatu gara, seilu berri guztiak Correosko zerbitzutik jasotzen ditugu, eta teknologia berriek eta bizi garen munduak zaletasunari eusten laguntzen digute... Gure “maniei” buruzko xehetasunik eman gabe, animatu egin nahi nituzke gaian interesa duten pertsona guztiak (ULMA ezagutzen ditut batzuk) elkarteko edonorekin edo neurekin harremanetan jartzeko.”



Lamioxin osina

Lamien aterpea Altuben



BIDAIA GIDA

Iristeko: Baranbio, Altubeko gainean. 29 eta 28 kilometroen artean dagoen bide bat bilatu behar da, eta ibairantz jaisten den pista hartu. Automobila errepide ertzean utz daitezke.

Aholkua: euri garaian Altubereren uberka zeharkatzeko arazoak egon daitezke.

Denbora: 1 h, joan. 45 min, itzuli.

Informazioa: www.amurrio.org

Lamioxin (edo Lamiaxin) pagadiz inguraturuta dago, Gorbeiaiko parke naturaleko bazter gorde batean, Altube ibaiaren gainean. Bertara iristeko biderik ederrenak Altube ibai ondoko oihasa batean ibilarazten gaitu. Portutik ibaira iristen den bidea hartuta, Altubek eta Jaundiak bat egiten duten pago baso batean sartzen gara, errege bideko zubi zaharraren azpitik igaro baino lehen. Errekan gora jarraitu behar da, zubitik 50 metrora gutxi gorabehera, eta ondoren Altubereren bidea zeharkatzea, ondoko baso pistan ezkerretara hartzeko, hegoalderantz. Pago artean, zuzenean igotzen gara lur korda batean aurrera, pistatik, Altubek eta Oiardok edo Jaundiak eratutako

sakoneren gainetik. Gutxi gorabehera ordu laurden bat ibili eta gero, malda leundu egiten da, haritz handien artean. Hegoalderantz aurrera eginda, bidearen eskuinaldean Inurbeko haitzaren erliebeak ikusiko ditugu. Bidebanatze batera iristen garenean ibilbidea mantendu egin behar da, aurrera jarraituz, bertako haritz eta pago basoan oraindik ere. Goian pinuek lagunduko digute, laugune batean bidegurutze bat aurkitzeraino, non haritz handien oinetan bost bide elkartzen diren. Gure bideak aurrera jarraitzen du, haritz handi baten pean, eta nabarmen igotzen da, amezti soilago batean barrena. Pista goratu egiten da eta sigi-sagak marrazten ditu Tronconeko

maldan, haritz eta ametz txikiren artean; paisaia itxi horretan, bideak gogor heltzen dio Tronconeko maldari, lepo batera iritsi arte. Soilgune batean eskuinetara jo eta segituan irtengo gara Lamioxingo osinaren ertzerara. Isililik iritsiz gero, bertan gelditu eta uretan freskatu ohi diren hegaztiak ikusi ahal izango ditugu, lasai. Aintzira txikitxo baina zoragarri baten aurrean gaude, landarediaz inguratuta, isilik eta abegitsu. Gorbeiaiko parkeko naturaren harribitxi bat.

BISITA; Garrastatxuko ermita

Hiru dorrek zaintzen zuten Baranbioko lurretan errege bidea: Ziorrogakoak, Zubiatekoak eta Bergantzakoak. Lehenengoaren eta azkenaren ondoan burdinolak ere izan ziren, baita XIX. mendearen hasieran ustiatzen hasi ziren meategiak ere, San Antoneko gainean, galena eta blenda ateratzeko. Horren guztiaren zaindaria, Gorbeiaiko eta ondoko mendietako oinean dagoen baso batean gordeta, Garrastatxuko santutegia dugu, herriaren hego-ekialdeko muino batean. Errukiaren Andre Mariaren basilizak indiano baten ondasunen laguntza jaso zuen, eta gaur egun oraindik ere Baranbioko bizilagunek debozio handia diote.

ROCHMAN eta ULMA C y E kooperatiba

ROCHMAN enpresa ULMA Taldean sartzea

Pasa den maiatzean ROCHMAN eta ULMA C y E kooperatibek beren Batzar Nagusiek egin zituzten, eta ROCHMAN enpresa ULMA Taldean sartzea erabaki zuten. ULMA Taldeko enpresa politikaren ildoari jarraituta, hartutako erabakia hainbat negoziotan, ahalmenak sinergiaren bitartez areagotzen dituzten negozioetan gestio eraginkorragoa lortzeko asmoz hartu da. Rochman Taldean sartzeko arrazoi nagusia Rochmanek garatzen dituen jardueren izaeran oinarrituta dago, izan ere, bere jarduerak (Meatzaritza, Mantentze lanak eta Packaginga) negozio lerro, gestio eredu eta arrisku maila desberdinak eta independenteak dituzte. Hori horrela, helburua da hiru jardueretan edo negozio lerroetan gestio independente eta eraginkorragoa lortzea. Beraz, planteatutako prozeduraren oinarria sinergiak aprobetxatzea eta ROCHMAN, S.Coop. enpresaren baliabideak Grupo ULMA, S.Coop. enpresa taldeko kooperatibetan optimizatzea da.

ROCHMAN, 50 URTEKO HISTORIA

Rochman enpresa 1958an sortu zen, 17 langilek enpresa kooperatibo bat sortzea erabaki zutenean, eta bere lehen izena Cooperativa Industrial de Ochandiano izan zen. ROCHMAN, S.COOP. izeneko kooperatiba, berriz, Otxandioko eskualdean ezarri ziren lehen lan komunitateek eratu zuten. Lan Ministerioaren erregistro ofizialean inskribatu eta, poliki-poliki, lege izaera osoa lortzen joan zen. 1958ko abenduan martxan jarri zen eta mekanika orokorreko eta galdaragintzako lan osagarriak egiten dihardu. Enpresa hau sortzeko egon zen arrazoi nagusia Otxandio aldean zegoen enpresa eskasia izan zen; garai hartan Otxandio herrian enpresa bakarra zegoen eta hura ez zen nahikoa orduko enplegu beharrei behar bezala erantzuteko, nekazaritzatik industria-rako mentalitatea aldatzeak enplegu premia hori areagotu zuen eta. Lanean hasteko behar ziren diru baliabideak eskuratzeko, bazkideen 50.000 pezetako ekarpenez aparte, herriko hainbat bizilagunek egindako ekarpenak ere erabili ziren. Ekarpenerik gutxienez 5.000 pezetakoak ziren, eta herritarrei itzultze-koak ziren. 1965era arte, kooperatiba nahiko astiro garatu zen, eta azpikontratatu gisa lan egiten zuen bezero bakar batentzat, FUNCORrentzat alegia, nekazaritzarako makinak egiten, hala nola birrintzeko eta nahasteko makinak eta akoplamenduak. 1965az geroztik, enpresak indar handia hartu zuen. Bere produktu gama handitu egin zen eta galdaragintzako lanak eta siloetarako eta nekazaritzako instalazioetarako osagaiak egiten hasi zen, besteak beste pentsuetarako lehen banda garraiatzaileak. NACOMA enpresa frantziarraren Espainiako ordezkariarekin lehenengo hartu-emanak hasi eta, 1967tik 1968ra bitartean, laguntza teknikorako kontratu bat izenpetzera helduko zen. Horrela, arrantzaren alorrean lanean hasi zen, zehazki arrantza

alorreko tratamenduetarako instalazioak eskainiz. Gainera, ikusita ROCHMANek FUNCORrentzat fabrikatzen zituen pentsuen banda garraiatzaileak zituzten arrabolak, Madrilén zegoen multinazional batek (PRECISMECA) saltzen zizkietenak, beraiek egin zitzaizketela, urte horietan produktu hori egiten hasi ziren eta, horiekin batera, galdategi, harrobi, paper fabrika eta beste toki batzuetarako mota guztietako garraiatzaileak ere bai. Denbora tarte horretan, Lagun-Aro elkartearen eta Euskadiko Kutxan sartu zen bazkide moduan, 1968ko urtarrilaren 1ean eta 1969ko abuztuaren 7an hurrenez hurren. 1984an produkzio lantegi bat eraikitzea erabaki zen bertan arrabolak fabrikatzeko. Hiru unitate autonomo izateko proiektua gorpuzten hasi zen. 1990ean enbaltzeko makinak esportatzeari ekitea erabaki zen eta aldi berean marka komertzial egokia bilatu beharra zegoela ikusi zen. Behin ospea lortuta, eta 1995ean, Kooperatibei buruzko Euskal Lege berrira egokitu beharra zegoela eta, Estatutuak aldatuko zirela aprobetxatuta, Kooperatibaren izena aldatu eta marka komertziala jarriko zitzaion. Jardueren bilakaera positiboaren ondorioz, 1995ean arrabolen lantegia handitu zen. 1999an beste lantegi bat inauguratu zen Mantentze Lanetako Dibisiorako.



kooperatibek egindako Batzar Nagusiek ALDEAN sartzea onartu zuten



AURKEZPENA ETA JARDUERAK

Rochman hiru dibisiotan antolatuta dago: Enbalatze Dibisioa, Meatzaritza Dibisioa eta Mantentze Lanetako Dibisioa. Etengabeko hobekuntzarekin, etengabeko berrikuntzarekin eta bezeroaganako orientazioarekin konprometituta dagoelarik, eta bere enpresa estrategia ingurune naturalarentzat aberastasuna sortzera zuzenduta, kooperatibak proiektio handiko enpresa moderno gisa begiratzen dio milurteko berriari, eta bere baliabide humanoak, teknikoak eta produktiboak ditu tresna nagusi merkatu globalean lehiatzeko. 180 pertsona inguru eta 29 milioi euroko fabrikazioarekin, Rochmanek bere garapen integralaren aldeko apustua egiten du, egokitzeko prozesu etengabearen, kualifikazio handiko taldeak eduki ahal izateko, merkaturik lehiakorren aurkezten dituzten errokeni aurre egiteko. Otxandion dago (Bizkaia), Euskal Herriko bihotzean. Instalazio modernoak ditu, sektoreko teknologiarik aurreratuenak integratuta, merkatuari eraginkortasunez erantzuteko behar diren fidagarritasun eta lehiakortasun maila bermatzeko. Abangoardiako ekipamendu produktiboak dauzka, esaterako, ebaketarako laser bidezko makina, elikadura automatikoarekin, doitasunezko tolesteko makinak, zenbaki bidezko kontroleko makinak, pintura labe-kabina gas bidezko elikadurarekin, eta, oro har, bezeroen eskariak garatzeko, fabrikatzeko eta hornitzeko behar diren elementu produktibo guztiak. Rochmanek, Meatzaritzako Dibisioan zein Mantentze Lanetakoan, grabitate arrabolen zein motordunen aukera zabala dauka, mantentze lanen arloko aplikazio desberdinetarako. Beharrezko karga ahalmenaren arabera eta zer aplikazio den kontuan hartuta, merkatuari soluzio egokia eskaintzen diogu, PVC, aluminio, altzairu zinkdu-

na edo gomaz estalitako altzairuzko tutuko arraboletan, hiru aldaeratan, hau da, arrabol libreetan, motordunetan edo metaketako motordunetan. Katalogoa osatzeko daude, besteak beste, arrabol konikoak, altzairuzko eta plastikozko gurpilak, minierrailak, norabide orotako gurpilak eta bola irristagarriak. Enbalatze Dibisioan ontziratze makinen gama zabal dago: 'L' erako soldagailuak, Kompaktuak, 'L' erako soldagailu automatikoak, SMAC-4015, Troxatzeko makinak, Uzkuradura tunelak, Kadentzia handiko troxatzeko makina bereziak, Fardelak egiteko makinak, Kanpai makinak, etab.



BILAKAERAREN DATUAK


Enplegua



Fakturazioa (M€)



Rochmaneko gorengo arduradunen iritzia ezagutu nahi izan dugu. Eta honako hau kontatu digute.



ARKAITZ RUIZ DE OCENDA

ROCHMANeko lehendakaria

“Uste dut Rochmaneko kide guztientzat onuragarria dela ULMA bezalako enpresa talde handi bateko kide izatea. Rochmanen hiru negozio unitate desberdin ditugu, kooperatiba txiki baten barruan, eta horrek azkenean faktura pasatu digu, inoiz ez genuelako hiru negozioetan aldi berean inbertsioak egiteko aukerarik, eta lehiakideei buruz atzean geratzen ari ginen. Orain, Rochman unitate bakoitzean bereizi eta ULMA integratu dira, bakoitza modalitate batean: Rochmaneko ontziraketa eta enbalajea ULMA Packagingen, Rochmaneko mantentze lanak ULMA Logistika Zerbitzuetako promozio berri bat izango da eta, azkenik, Rochmaneko meatzaritza ULMA Taldeko kooperatiba eta unitate negozio berri bihurtuko da, eta horrekin guztiarekin etorkizun itxaropentsua ikusten dugu. Rochmaneko kideek proiektu berriaren aldeko apustua egin genuen, orain eta etorkizunean guretzat onena izango dela intuizten dugulako, baita gure ingurunearentzat ere, gestio planetan jasotzen den bezala, inbertsio eta enplegu hazkunde handiekin.”



FERNANDO GOYENA

ROCHMANeko gerentea

“Azken urteotan ikusten ari ginen nola ekonomia globalizatzen ari zen eta sasoi batean nolabait babesten gintuzten muga komertzial haiek desagertzen ari ziren. Merkatuaren eraldaketa horrekin aukera berriak izango genituen, baina egoera berrirako ondo prestatuta egon behar genuen. Bistakoa zen, ordea, epe laburrera mehatxuak nonahi izango genituela, lehiakideak elkartzen ari zirelako, nazioartean lehiakideak agertzen ari zirelako eta garapen bidean zeuden herrietan fabrikatzaile berriak agertzen ari zirelako, besteak beste. Errealitate berri horretara moldatzeko, lan handia egin behar genuen berrikuntzan, kalitatean, nazioartekotzean, gestio moduetan eta abarretan, baina gure giza baliabideak eta baliabide teknologikoak ez ziren nahikoak horretarako, eta oraindik txiki samar ginen. Kontuan hartu behar da hiru jarduera ditugula eta, ondorioz, premiak hirukoiztu egiten zitzaizkigula eta, gainera, uste genuen agertoki honetara egokitzeo aspalditik geneukan jarduera horietako bati utzi beharko geniola ezinbestez. Aukera horrek arazo asko ekarriko

zizkigun, batez ere kontuan hartzen bagenuen negozioen oreka dimentsionala. Bestalde, gure jardueretako batzuk eta ULMA Taldeko negozioek garatzen zituzten beste batzuk berdina zirela ikusita, ez genuen uste zentzuzkoa zenik elkarlanean aritu beharrean lehian aritzea, nahiz eta hori gutxitan pasatu. Gauzak horrela, ULMA Taldera hurbildu ginen. Ondo hartu gintuzten baina, hasieratik, garbi gelditu zen akordiorik lortu nahi izanez gero, tartean Taldearen enpresa proiektuaren ildo beretik doan enpresa proiektu bideragarriren bat egon beharko zela. Hainbat hilabetetan erakunde bietako langileak elkarrekin lanean ibili ondoren, beharrezko Plan Estrategikoak egin ziren, non alde bien elkarlanerako arloak eta lan osagarrietarako arloak jasotzen ziren. Bagenekin elkartzearen ondorioa ez zela batuketa matematiko hutsa izango, ondorio biderkatzaileak izango zituela baizik. Hori dena pasatuta, beste guztia errazagoa izan zen, barruko arauak zein bestelako ezaugarri batzuk (kultura, etab.) oso antzekoak zirelako, eta horri esker proiektua nahiko erraz atera zen. Dena dela, badakigu ahalegin handia egin beharko dugula “ULMA kulturara” ahalik eta lasterren egokitzeko. Erabakia, nik uste, denontzat oso garrantzitsua da, baina Rochmanen kasuan, nondik abiatzen den ikusita, babes handiagoko dauka hasieratik etorkizunari eta bere negozioen garapenari begira. Denok, handi zein txiki izan, garbi eduki behar dugu gogotik egin beharko dugula lan azken urteetako hazkundera eta ongizateari eutsi nahi badiegu.”



EUSEBI VITERI

ULMA SERVICIOS LOGISTICOS S. COOP. eko lehendakaria

“Ez dago dudarik, aldaketa eta apustu garrantzitsua da. Kontuan izan behar dugu Rochman, S. Coop. enpresak enpresa gisa egindako bidea frogatuta dagoela (duela gutxi 50 urteak ospatu ditugu). Aldatzea ez da erraza, ibilbide luzea eta irudia finkatuta daukan enpresa bat garen heinean. Halere, erraz ulertu dugu etorkizuneko erronkei aurre egin ahal izateko lehenbailehen handitu beharra daukagula, eta, horretarako, talde bien (Rochman eta ULMA) ezagutzak batu eta merkatuan duten presentziaz baliatuko gara elkarri indarra emateko. Badakigu, eta ez daukagu dudarik, apustu handinahia dela, eta sentimentalismoak alde batera utzi beharra dagoela, hau da, izena (Rochman), erabaki zentroa eta helbide juridikoa Otxandion izatea eta bestelako kontuak ahaztu behar ditugula. Gizartearen ikuspuntutik, badakit integrazio honek hobekuntza nabarmenak ekarriko dizkiola Rochmanen egun dagoen lan taldeari, bai enplegua sortuko delako, bai gure ingurunearen garapen sozioenpresariala ekarriko duelako, bai gure negozioak nazioarteko

merkatuetan egongo direlako, etab. ULMA Taldeak, zalantzarik gabe, aparteko zerbait ematen digu, plus bat, produktuetan, markan, prestigioan, baita merkatuetako presentzian ere. Taldeak oro har ilusioa dauka hartu dugun erabakiarekin, eta enpresak egingo duen ibilbide berriaren zain dago”.

ROCHMANeko langile batzuei galdetu nahi izan diegu zer iritzi duten ROCHMAN enpresa ULMA Taldean sartzearen gainean, eta hona hemen esan digutena.



ANTON BENGEOA

"Ilusioa daukagu eta baikorrak gara honen moduko enpresa proiektu batean parte har dezakegulako; izan ere, azken urteetan ULMAk eredu kooperatiboan oinarritutako enplegu iturria dela erakutsi du, eta bere taldeko enpresak dauden lekuetan eta inguruneetan aberastasuna eragin du. Azkarrak bagara eta azken urteetan ULMA Taldean garatu diren esperientziak eta tresnak partekatu eta aplikatzerik baldin badaukagu, enplegu eta aberastasun gehiago sortuko dugu hurbilen dugun ingurunean, etorkizunean beste herrialde batzuetara hedatzeko aukera baztertu gabe. Kezkak eta urduritasuna ere ekarri dizkigu, hemendik aurrera rochmanen aldatetak egon baitaitezke, esaterako, aginte berriak, norberaren lanpostuan aldatetak, lanpostuen balorazio berriak, ULMA Taldean erabat sartzea, plan estrategiko berrien garapena... Era berean, uste dut Rochmaneko kolektiboak heldutasunez jokatu duela eta erabaki zaila hartzearen aldeko apustua egin duela, 50 urtetan zehar dibisio guztiak kooperatiba bakar batean elkartuta egon ondoren; hala ere, nire iritziz erabaki horrekin asmatu egin dute, negozioen etorkizunerako behintzat. Laburbilduz, ahalik eta lasterren ULMA ereduaren erabat sartzeko egin beharreko guztia poliki-poliki baina gelditu gabe egiten bada, egoera ekonomiko global normal samar batean, garapen ekonomikoa eta bazkide guztien asmo sozialak elkartuz, motibazioa eta norberarena den eta ondo egin dagoen zerbaiten alde lan egiteko ilusioa galdu gabe, ba, 2008ko maiatzaren 19an hasitako bide honetan aurkituko ditugun erronka gehienak gainditzeko gai izango gara."



ALFREDO TEJEDOR

"Oso positiboa, bai. Aspalditik garbi zegoen gure kooperatibak eta, batez ere, Mantentze Lanetako Dibisioak teknologia berriak behar zituztela eta ezinbestekoa zutela balio erantsi handiagoko merkatuetan egotea. Eta bagenekien hori etorriko zela, teknologiaren alorreko bazkide bat genuelako eta harekin urrats hori egin genezakeelako. ULMA Taldean sartzeko erabakiarekin, soberan lortu dugu esandakoa; izan ere, orain dela 50 urte jaio zen kooperatiba hura izaten jarraitzen dugu eta, gainera, MCCn proiektuorik handien daukaten eta gehien nabarmentzen diren taldeetako batean sartuta gaude, jakinda MCC bere ere lan handia egiten ari dela, eta bere negozio guztien garapenaren alde eta asko inbertitzen ari dela teknologian, I+G+B-an eta agertzen ari diren merkatu berrietan. ULMA Taldean sartzeko, bestalde, zalantza eta kezkak eragin ditu Rochmaneko langileengan, hiru negozioen batasuna haustea dakarrelako (enbalajea, meatzaritza eta mantentze lanak). Zaila izan da, baina Ezohiko Batzar Nagusiko bozketan ikusi zenez, bazkide gehienak ULMA n sartzearen alde agertu ziren, ULMAko negozioak eta Rochmanekoak ildo berekoak zirelako eta teknologia eta pertsonen aldetik potentzial handia dagoelako, eta gure negozio ereduaren ikuspuntutik nahiko genukeen proiektzioa duelako. Hitz batean, aurrerapauso garrantzitsua da eta erronka handia ere bai, enpresaren eta pertsonen ikuspuntutik, betiere Rochmanen historia ahaztu gabe (pasa den hilean 50. urteurrena ospatu genuen) eta, inork ez duela ezer oparitzen jakin badakigu ere, nik uste dut akordio hau berdinaren arteko akordio ona dugula; beraz, hemendik animatu nahi ditut ULMAko eta ROCHMANeko bazkideak diseinatu diren akordioak eta proiektuak urte gutxi barru negozio handia izan daitezen eta ondo egindako lanaz pozik egon gaitezen".



JAVIER RIBERA

"ULMA Taldean sartzeko prozesua ilusioz eta baikortasunez hartu da. Ikuste besterik ez dago Kontseilu Errektoreak, Zuzendaritza Batzordeak eta Kontseilu Sozialak emandako erabateko laguntza, bai eta maiatzaren 19an egindako Batzar Nagusian bazkide gehienek (%94) emandako baieztoko botoak ere. ULMAko eta ROCHMANeko pertsonak eta organoak hiru urtetan zehar elkarrekin egindako lana kolektiboaren onarpena lortuz joan da pixkanaka-pixkanaka eta, azkenean, 50 urtetan landu den enpresa proiektua sendotzeko eta hobetzeko aukeratzat hartu da. Zenbait gairen inguruan sortu diren eta oraindik ere indarrean dauden ohiko zalantzak eta kezkak alde batera utzita, Taldean sartzeko prozesua begi onez ikusten da, nahiz eta ROCHMANen gaur egun dauden hiru negozioetan prozesua fase desberdinean egon. Zehazki, prozesua oso positiboa dela uste da, enpresaren errealitate berriari balioa eransten diolako eta garapen profesional eta pertsonalerako aukerak areagotu egiten dituelako. Kolektiboak badaki hemendik aurrera beste etapa batean sartuko garela, eta ahalegin handia egin beharko dela negozioak ulertzeko modu berrietara egokitzeko eta datozen berrikuntzetara moldatzeko, hala nola politika eta estilo berrietara, prozedura eta erreminta berrietara, lege arau berrietara eta lan egiteko modu eta lan jarrera berrietara. Azken hori da garrantzitsua, eta agian zailena ere bai. Prozesuaren alderik txarrena, ikuspegi pragmatikotik baino gehiago ikuspegi sentimentaletik begiratuta, 50 urtetan zehar profesional askoren lanarekin eratu den izaera juridiko eta kultural propioko errealitate sozio-enpresariala alde batera uztea da, eta kooperatiben ingurunean Eraikuntzaren Dibisiotik banatzea."



ENEKOITZ URIARTE

"Niretzat, integrazioa gehienbat aukera ikaragarria da Rochmanentzat, maila guztietan garatzeko aukera ematen diolako eta kalitate handiko produktuen eta zerbitzuen eskaintza berritzailea eta lehiakorra egitea ahalbidetzen diolako. Rochman Embalajearen kasuan, enpresa bolumena kritikoa izan da negozioaren garapenerako, eta horrek, orain arte, nahiko baldintzatu gaitu. ULMA Packagingen sartzeararekin, ordea, garapen hori azkarrago gertatzeko aukera ikusten dugu, bi ardatz nagusitan eraginda, produktuan eta merkatuan, alegia. Ikerketak eta berrikuntzak, Packagingeko Teknologia Zentroaren eskutik, produktuan nabaritu beharko lirateke. Kooperatiba biak elkartzetik sortutako sare komertzialaren eta zerbitzukoaren eraginak, berriz, merkatuan nabaritu beharko lirateke. Dena dela, badakigu integrazioak ahalik eta lasterren emaitzak eman ditzan eta emaitza horiek onak izan daitezen lan egin beharra daukagula, eta, beraz, lana gure gain hartzen dugu."

Zure iritziz, gaur egungoa bezalako motelaldi ekonomikoko ingurune batean, ULMA n hazten jarraitzeko ongi prestatuta gaude?

Atal hau hobetzeko, gauza bat proposatu nahi dizugu: bidali atal honetan planteatuta ikusi nahi zenituzkeen gaiak edo galderak; begira@ulma.es



FRAN FERNANDEZ
ULMA Orga Jasotzaileak
“Bai, zalantzarik gabe prestatuta gaude”

Bai, ULMA Taldeari dagokionez, zalantzarik gabe prestatuta gaude. Krisi sako-nagoak gainditu izan ditugu gaurkoak bezain sendoak ez ziren oinarriekin. Oparaldi ekonomiko luze honetan erabaki estrategikoak hartu dira, eta horiei esker baikorrak izan gaitzke: gure negozioak nazioartekotzea, I+G-an inbertitzeko egindako ahalegina eta Taldea osatzen duten pertsona guztiak profesionalki prestatzea dira krisi garai hauetan onik aterako garaia aurreikusteko elementuak. Gure ULMA Orga Jasotzaileen negozio honi dagokionez, beharbada berak izango du zailen, banaketa kontratuen ondorioz batez ere espainiar merkatuan lan egiten dugunez, nazioartekotze eskasa dugulako, baina dibertsifikatzeko eta hazteko erabaki den strategiak indartuta ateratzen lagunduko digu. Zalantza sortzen duten puntuen artean aipatu behar da bazkide kopuruaren hazkunde handia, izan ere, horrek esan nahi du bazkide horietako askok ez dutela krisialdirik bizi izan, eta horrelako garaietan ez da nahikoa “egiten dakiguna” ondo egiten jarraitzea. Gure ekarpena eta ahalegina handiagoak izan behar dira, bai dedikazioari dagokionez, bai berritzeko gaitasunari dagokionez.



IÑAKI OLALDE
ULMA Construcción
“Azken urteotako erritmoan haztea ezinezkoa izango da”

Nire ustez, azken urteotako erritmoan haztea ezinezkoa izango da. ULMA Construcciónen etxeko merkatuan ez gara haziko, Espainian eraikuntzaren zikloa moteldu egin delako eta horrek lan zibila lehenestera bultzatzen gaituelako. Hazkundera atzerriko merkatuetan gertatuko dela aurreikusten dugu: epe laburrera Europa Ekialdean (Polonia, Errumania...), ABEetan eta Ekialde Hurbilean; eta epe ertainera Asia-Ozeano Barea ardatzean. Prestatuta al gaude? Bai, gure nazioartekotze mailak prestatuta gaudela pentsarazten digu, baina badakigu halaber beste merkatu batzuetan haztea kontu motelagoa dela, ahalegin handiagoa eskatzen duela eta arrisku handiagoei aurre egin beharko diegula. Uste dugu hobe dela pixkana joatea, eta merkatu desberdinak finkatzen joatea, horietako bakoitzaren egoera ziklikoak konpentsatzeko. Etorkizunean izango dugun hazkundeak erroka berriak izango ditu: berrikuntza, sentsibiltate lokalak eta aldi berean ezezagunagoak dituzten merkatu berriak eta, baita ere, gauzak egiteko modu berriak.



JAVIER DE IRIBAS
ULMA Hormigón Polímero
“Desazelerazioek aprobetxatu behar ditugun aukera handiak sortzen dituzte”

Atzeraldi zikloek, edo desazelerazioek, aprobetxa ditzakegun eta aprobetxatu behar ditugun aukera handiak sortzen dituzte. Merkatuak zorrotzago bihurtzen dira, eta negozioak dibertsifikatzea edo nazioartekotzea merkatuak maximizatzeko eta arriskuak dibertsifikatzeko funtsezko faktore bihurtzen dira. Termino horietan, uste dut ULMA Taldea osatzen dugun negozioak datozen garai zailei aurre egiteko prestatuta gaudela. Guztiz garrantzitsua da baita ere ULMA bezalako marka bat izatea, entzute handia baitu oso sektore heterogeneoetan. Aitzitik, azaleratzen ari diren merkatuetako soldatenak ez bezalako kostu handiak, produktibitateak, berrikuntza eskasa edo azken urteotan bizi izan dugun ongizate egoera arriskutsua oztopo bihurtzeko kalitatean, kostuan eta epean lehiatu ahal izateko.



MIKEL ONGAY
ULMA Piping

“Eraikuntzaren krisiak eragin handia izango du”

Argi dago ULMA Taldea ez dela motelaldi ekonomikotik kanpo geratuko. Ez dela kanpoan geratuko esaten dudanean ez dut esan nahi hazten jarraitzeko prestatuta ez gaudenik, baizik eta hazkunde horren erritmoan eragina egon daitekeela, pixka bat gelditi daitekeela. Motelaldiaren faktore nagusietako batean zentratzen bagara, eraikuntzaren krisian, eta kontuan hartuta Construcción negozioak ULMA Taldean duen pisu berezia, ezinezkoa da urduri samar ez ipintzea. Dena dela, erritmoa gorabehera, badirudi negozio honetan hazteko aurreikuspenak indarrean jarraitzen duela, eta hori ulertzeko da: kontuan hartu behar da, higiezin krisia globala bada ere espainiar lurraldean areagotu egiten den arren, eta horrek bai eragingo duela ULMA Taldeko Construcción negozioan, hori ez dela modu traumatikoan gertatuko, negozioak garatu duen nazioartekotze politikari esker. ULMA Taldearen hazkundearen beste adibide bat, eta gauza bitxia da, desazelerazioa ekarri duten faktoreetako beste bati lotuta dago, hau da, petrolioaren prezioaren igoerari. Hidrokarburoen prezio altuek sektoreko osagaien horniduren merkatua benetan indartsu egotea ekarri dute (ateratzeko putzuak, petrolio gordina garraiatzeko instalazioak, findegiak...). Horren ondorioz, esaterako, ULMA Piping negozioak erritmo bizian haztea aurreikusi du, petrolioaren eta gasaren sektorerako osagaien hornitzailea den heinean. Desazelerazio une batean hazten jarraitzeko ditugun aukerei buruz baikorrak izateko beste datu bat da gaur egun dagoeneko orain dela sei hilabete baino gehiago garela. Rochman ULMA Taldean sartzeari buruz ari naiz. Sarrera berri horrek Packaging eta Handling negozioak haztea ekarri du, eta gainera negozio berri bat sortu da, ULMA Minería, eta badakit horrek itxaropen sendoak dituen epe laburrera eta ertainera hazteko. Laburbiltzeko, aurrekoari ULMA Taldeak bere historian zehar krisi egoeretan erakutsi duen esperientzia gehitzen badiogu, eta ez da soilik hazi dela, baizik eta sendotuta irten dela, eta Taldean nagusi diren hazkunderako konpromisoa eta bokazioa gehitzen badiogu, esango dut, nire iritziz, ULMA Taldean baietz, prestatuta gaudela.



EDUARDO LASA
ULMA Handling Systems

“Gaur egun dugun erronka nagusia barne antolamendua da”

Datorkigun desazelerazio giroarekin, uste dut ez gaudela prestatuta orain arte bezalako erritmoan hazten jarraitzeko, baina konbentziturik nago hori egiteko potentziala badugula. Izan ere, negozio lerro bereziak ateratzeko jardueran ari gara buru-belarri, esaterako, Sorting & Baggage Handling, Supply Chain Software eta Supply Chain Consulting, GEMIN eta EQUINOX bezalako enprekin aliantza internazionalak egiten ari gara, eta horiek automatizazio logistikoko soluzioen eskaintza zabaltzeko aukera emango digute. Aldi berean, merkatu berrietan nazioartekotzeko prozesua, esaterako Brasilen, Argentinan, Txilen edo Italian, funtsezko prozesua izango da gure jardueran hazten jarraitu ahal izateko. Gaur egun dugun erronka nagusia barne antolamendua da, horrek aukera emango baitigu gestioa hobetzeko eta, ondorioz, lehiakortasuna ere hobetzeko.



Iñaki Zubia
ULMA Packaging

“Testuinguru negatiboetan ahuleziak nabarmenago azalaratzen dira”

Egoera orokorra aldekoa bada eragin negatiboa izan dezaketen arazoak edo egoerak ez ikusteko joera izan ohi dugu, baina egoera alderantzizkoa bada, ahuleziak nabarmenago azalaratzen dira. Desazelerazio egoera orokortu batek merkatuak inbertitzeko duen gaitasunari eragiten dio, eta batez ere eragin negatiboa dauka eroslearen konfiantzan, eta zenbait kasutan aurreikusitako inbertsioak geroratu edo bertan behera utziko ditu. Eskaera murrizketa horretan, eskaintzeko gaitasuna eskatzeko gaitasuna baino handiagoa denez, saltzeko aukerak murriztu egiten dira, eta guztiok modu erasokorragoan lehiatzen gara gure jarduerari eta merkatuan dugun kokapenari eusteko. Egoera ezagutzen duen bezeroa bere erosketetan abantaila lortzen saiatuko da eta, beste faktore batzuen artean, prezioa merkatzen saiatuko da. Salmenta gutxiagorekin eta salmenta prezio merkeagoekin, kostua are faktore kritikoago bihurtzen da eta, horregatik, baita oparoaldietan ere, gure kostuak optimizatzen saiatu behar dugu etengabe. Galderari berari erantzunez, gure kokapen lehiakorra hobetzeko bide egokian gaudela erantzun behar dela uste dut, baina oraindik bidea dugu egiteko. Denbora batetik hona erosketak ere nazioartekotzen eta produkzio guneak dibertsifikatzen saiatzen ari gara, besteak beste, kostu lehiakorrak lortzeko eta Oñatiko gure produkzioaren marjinak hobetu ahal izateko, bertan fabrikatzen ditugun elementuen materialen eta osagaien kostuak hobetzeko; are gehiago, beste herrialde batzuetan ekipamendu sinpleagoak eta estandarrak ekoiztu behar genituzke, helmugan lehiakorrak izateko, izan ere, hemendik lan egiteak epe ertainera merkatuan egotea galaraziko liguke, garraioan, arantzetan eta abarretan sortzen diren kostu gehigarriengatik.

> Agenda eta iradokizunak

> profila



Javier Palacios
ULMA Construcción.

Javier Palacios ULMA Construcciónen aritu den 40 urteetan mota guztietako egoerak bizi izan ditu. Orain, erretiroa ate joka duelarik, bere sentsazioak jakinarazten dizkigu.

Zein dira ULMATik dituzun oroitzen onenak? Kooperatiban bazkide aktibo izan naizen 40 urteetan, zorionez, oroitzen oneko momentu eta gertaera asko eta asko izan dit: horiek gogoan ditut, eta sarri bizi-

tzen ditut berriro eta horietaz gozatzen. Baina oroitzen onenak garrantzitsuena, atsegini handiena sortzen didana, 1984ko zalantzen ondoren Kooperatibak izan duen SUSPERRALDIA eta GARAPENA ikustea da.

Zer nabarmenduko zenuke ULMA izan duzun ibilbidean? Kooperatiban lan egin dudana osoan, nabarmentzeko jardura guztiak lan talde desberdinak osatu dituzten lankide-bazkide askoren babesa eta laguntza ondu izan dira, eta, horregatik, pertsona horietako bakoitzaren gogoan uzten dut izandako lorpenen poza. Dena dela, adierazi nahi dut nire ibilbidea Zuzendaritzak une bakoitzean transmititu dizkidan eskakizunak betetzera zuzendu dela beti.

Erretiroa hartu aurretik, nor edo zer hartu nahi zenuke gogoan? Kooperatibako bazkide beteteranoak eta funtzionariak, horien jarrerak eta ekarpenek ezarri baitzituzten

Talde Kooperatibo hau erakitzeko oinarriak, kasu askotan Kooperatibaren interesak beren interesen aurretik jarri. Gaur egun ULMA Taldea aberastasun eta ongizate iturria da, bai bazkideentzat, bai Kooperatibak behar izan dituen leku eta lanetan jardun duten gainerako langile eta laguntzaileentzat.

Zer esango zenieke orain hasten ari diren gazteei? Ohartu daitezela Kooperatiba DENONA eta BAKOITZARENA dela, ondasun ZATIEZINA dela, bertan parte hartu eta disfruta dezatela, "BEREN KOOPERATIBA" pozik egoteko modukoa izateko, bertan zati aktiboa izan garen bazkideak gauden bezala.



Portalde



"Bruce Springsteen Donostiako kontzerturako bi sarreraren irabazlea"

Enara Gallastegi orain dela urtebete hasi zen ULMA Construcciónen lan egiten, muntatze lanen arloan, eta gaur egun administrazio arloan dihardu. Enarak bi sarrera irabazi ditu datoarren uztailaren 15ean Bruce Springsteenek Donostian emango duen kontzerturako. Zozketa joan den maiatzaren 30ean egin zen, ULMA Taldearen intranet berrian (portalde) apirilaren 14tik maiatzaren 30era egindako bisita guztien artean.

>> Zer maiztasunekin sartzen zara portalden? Noizean behin sartzen naiz portalden, Taldeari buruzko informazioaren bat behar dudanean, egutegiak...

>> Zer iritzi duzu ULMA Taldearen intranet berriko edukiei buruz? Zertan hobe dezakegula uste duzu? Orain arte ikusi dudana ongi dagoela iruditzen zait; lehen esan dudanez, ez dut portalde egunero erabiltzen eta, horregatik, ez ditut eduki guztiak sakon ezagutzen. Oro har, uste dut ideia ona dela intranet bat edukitzea Taldeari eta gainerako nego-

zioei buruzko informazio generikoa eskuratu ahal izateko.

>> Gustuko duzu Bruce Springsteen? Bai horixe, bere abestietako asko ezagutzen ditut, baina badira beste asko ere Bruce Springsteen bezainbeste gustatzen zaizkidanak.

>> Kontzertura norekin joango zaren erabaki duzu dagoeneko? Oraindik ez daukat oso argi... pentsatzen dut lagun bat gonbidatuko dudala, baina azkar erabaki beharko dut. Seguru ongi pasatuko dugula!



ENARA GALLASTEGI
ULMA Construcción

ii Animatu eta bidali zure argazkirik onenak:

Animatu eta bidali zure argazkia

ANIMALIAK !!



Begira aldizkariak animaliei buruzko zure argazkirik onenak bidaltzeko animatzen zaitu. Irudi onenen aukeraketa bat egin ondoren, 2009. urterako korporazioaren egutegia egingo da. Gainera, argazkiak bidaltzen dizkiguten guztien artean hainbat opari zozketatuko dira. 2008ko irailaren 19 arte bidali daitezke argazkiak, posta elektronikoz, begira@ulma.es helbidera. Bidalitako imaginak Portalden ikus ditzakezu.

III. Lehiaketa honetan 6 irudiko muga jarri da, eta egutegi korporatiborako bazkide edo langile bakoitzeko argazki bakarra aukeratu ahal izango da.



2009ko
egutegia

Hartutako
**irudi guztien
artean**

hainbat

sari

banatuko dira

ERRETIROA HARTU DUTENAK: ULMA Taldean 2008ko maiatzaren 1etik abuztuaren 31ra erretiroa hartu dutenak.



Pedro Zabaleta Lazcano



Tomas Pinto Fernandez



Jose Antonio Urquia Uriarte



Juan Biain Urcelay



José Victor Lizarralde Zabaleta



Roque Eceolaza Anduaga

**ANIMATU ETA BIDALI
ZURE IDEIAK;**
begira@ulma.es

Eta gainera, beti bezala, gure iradokizun Kutxa ere badugu, zuen ideia eta iritziak jasotzeko prest;

ULMA Taldea
Zerbitzu Zentralak
Garagaltza Auzoa 51 -
P. K. 22.
20560 OÑATI (Gipuzkoa)
Erref.: Begira
Email: begira@ulma.es

Eskerrik asko guztioi, eta goza dezazuela! Zorionak



I PINTURA LEHIAKETA

MARGOTU DEZAGUN NATURA



Joan den ekainaren 19an banatu ziren lehenengo pintura lehiaketako sariak, ULMA Taldeak Garagaltzan dituen instalazioetan; lehiaketa ULMA Taldeko bazkide eta langileen seme-alabei zuzenduta zegoen, eta 6 urtekoen mailan irabazlea Ane Maiztegi izan da eta 10 urte arteko kategorian Ane Zuloaga.

